

**ARABA ERDIALDEKO
LURRALDEAREN ZATI KO PLANA**

1

MEMORIA

Behin Betiko Onespenaren Testua

2004ko abendua

AURKEZPENA

Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Plana 1997. urtean hasi ziren idazten; eztabaidatu ondoren, hurrengo urtean Planaren Aurrelaburpena onartu zuten.

Harrezkero, plana garatzeko prozesua mantsotu egin zen erabat, eta bost urte igaro ziren 2003ko otsailean hasierako onarpena eman zioten arte.

Eta horri zegokion erakustaldi publikoan hainbat erakundek eta partikularrek formulatutako 19 alegazio-idazki jaso ziren, eta entzunaldiaren izapidean lurralde-administrazio publikoek beste 44 idazki aurkeztu zituzten. Idazki guztiak eta Sustapen, Zientzia eta Teknologia eta Defentsa Ministerioek egindako txostenak aztertu ondoren, berariazko txostenak egin zituzten horiei guztiei banan-banako erantzuna emateko.

Alegazioen edukia baloratzeak Planaren gorputzari gehitu zitzaion eranskina idatzi beharra ekarri zuen. Bertan, planaren azken bertsioak jaso beharko lituzkeen aldaketa guztiak bilduta zeuden, eta 2004ko martxoan behin-behineko onarpena ematea ahalbidetu zuen.

Horiek horrela, behin-behineko onarpen aginduak Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onartu aurretik exijitu zuen Testu Bategina da esku artean dugun dokumentu hau. Honako liburuki hauek hartzen ditu bere baitan:

- 1. liburukia: Memoria eta Plangintzarekiko Eraginak.*
- 2. liburukia: Araudia.*
- 3. liburukia: Planoak.*
- 4. liburukia: Programazioa.*

*Idazle-taldea
2004ko maiatza*

Aurkibidea

I ESTRATEGIA ETA EDUKIAK

I.1.	Estrategia baterako giltzarriak.....	5
I.2.	Planaren edukiak	17

II PLANAREN TRESNAK

II.1.	Lurraldearen egitura	25
II.2.	Lurraldearen gobernua.....	33
II.3.	Esku hartzeko moduak: Ekintza Egituratzailleak eta Eragiketa Estrategikoak	49
II.4.	Udalerriei zuzendutako determinazioak (4/90 Lege Agindua eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak)	55
II.5.	Lurraldearen Zatiko Planak udalerriei zuzendutako determinazioak eta iradokizunak. Eraginen dokumentua.....	62

I

ESTRATEGIA

ETA

EDUKIAK

I.1.

**ESTRATEGIA BATERAKO
GILTZARRIAK**

Araba Erdialdea aukeren lurralde gisa agertzen da. Begien bistakoa da dagoeneko egiaztatu ahal izan diren aukerak eskaintzen dituela. Hala eta guztiz ere, **etorkizunari begira, oraindik ere aukera eskusibo eta bereizgarriak izan ditzake**, apustu handia egitea ahalbidetuko diotenak, joeratik harantz. Horixe da aukera handia: **aukeren lurralde** bilakatzen dutenak.

Baina aukera horiek potentzialak dira. Baldintzak egon badaude baina, errealitate bihurtzeko, Araba Erdialdeak bestelako posizio bat lortu behar du, gaur egun ziurtatuta ez dagoena eta inertzia bidez bere kasa lortuko ez duena.

Araba Erdialdeak desberdintasun lehiakorraren alde apustu egin dezake, ikusmolde zabalago batetik Euskal Hiri-Eskualdearena ere badena. Bere barruan, haztea eta pisu erlatibo handiagoa lortzea komeni izateaz gain, Araba Erdialdeak hazkunde ekonomiko selektiboa eta bereizgarria erreklamatu dezake, eta aldi berean Euskal Autonomia Erkidego osorako eskaini, beretzat “jauzi” bat adieraziko baitu ekarpen eskusibo gisa –beste espazio batzuekin alderik izan gabe– Euskal Hiri-Eskualderako.

Araba Erdialdearen berezitasuna eta aukera erabat onartuta dago Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan, baina baliteke une honetan duela gutxi izan den eta nolana ere beste mota batekoa den garapen industrialaren ondoren sortzen ari diren baldintza bereizgarriak nahikoa ez azpimarratzea.

Abagune horiek identifikatzea eta ezkutuan dauden aukerak agerian uztea dira Lurraldearen Zatik Plan bati dagozkion egitekoak, ikuspegi estrategiko batetik begiratuta. **Instrumentalki aukera horiek lurraldera eramatea**, garatu ahal izan daitezen laguntzeko modu gisa, Lurralde Plan baten funtsezko zeregina da. Eta bi lan horiek Dokumentu honetan egin dira.

1. ARABA ERDIALDEKO ABAGUNE GENERIKOAK

Ezagunak dira Araba Erdialdeak izan dituen abaguneak eta Vitoria-Gasteizen hain hazkunde bizkorraren oinarrian egon direnak. **Lurzoru laua** eta komunikazio ardatz handietan bere **kokapenak duen balioa**. **Enpresak erakartzeko gaitasun** egiaztatua, Foru Aldundiaren zeregin aktiboarekin, aldeko baldintza generikoen laburpen eskematiko horren osagai izango lirateke.

Nahikoa al dira baldintza horiek, etorkizunari begira? Beharbada bai, orain antzematen den aldeko joera berezia luzatzeko, nahiz eta galdera hau planteatu genezakeen: Noiz arte? Lurzoruaren ustezko erabilgarritasuna oraindik ere gertatzen ari den zerbait da. Arabako Foru Aldundiaren jarrerak aktiboa izaten jarraitzen du, nahiz eta inbertsiorako dituen baliabideak, termino erlatiboetan gutxienez, txikiagoak izan nabarmen. Ardatzetan “egoten” jarraitzea jadanik ez da ziurtatu daitekeen zerbait.

Planaren helburua, generikoa izan arren beharrezkoa, etorkizun hobeago baterako baldintzak sortzea da. Dena den, gero eta gehiago sortzen ari da lurralde bakoitzean galdera hau, dagokion enuntziatuan orokorra, ez ordea bere erantzunean: **Kasu honetan, zein da Araba Erdialdeak bete dezakeen zeregina?** Galderari erantzuten saiatzeak arazoibide estrategiko baten oinarria adierazten du.

Lehia gogorra antzematen den une batean gaude, eta hiriak eta lurraldeak serio planteatu beharrean daude galdera hau: **Zeintzuk dira gure aukera bereizgarriak?** eta **Zeintzuk dira gure desabantailak –barrukoak eta kanpokoak– aukera horiez arrakastaz baliatzeko?**

Ez da nahikoa helburu generikoak planteatzea. Apustu estrategikoak zehatza izan behar du, espezializatua, gero eta neurri handiago batean eskatzen den bezala.

1.1. AUKERA ESKLUSIBOAK ETA BEREIZGARRIAK, ETORKIZUNARI BEGIRA

Gaur egun Araba Erdialdeak duen aukera eskusiboena **kargan espezializatutako aireportu bat** edukitzea izan daiteke, bidaiari/karga aireportu misto handietan gertatzen denaren aurrean lehentasuna emango liokeena, askoz ere hegaldi gehiagorekin eta lehentasun hori emateko ondorioz sortzen diren zailtasunekin topatzen baitira.

Aukera hori oraindik ez da halakotzat hartzen, ordea. Hala eta guztiz ere, aireportuari dagokionez –VIA sozietatearen kudeaketa bikainaren bidez– alderdi horretan da Araba Erdialdeak berrikuntzarako eta etorkizunari begira apustu egiteko gaitasun handiena erakutsi duena ekimen publiko-pribatuari dagokionez, enpresak erakarri edo sortzeko gaitasunarekin batera, esate baterako GAMESA (bere ezarpena Parke Teknologikoan kokatuz) edo GGZ bezalako zerbitzuak.

Zer esan nahi du Europako beste hainbat aireportu imitatzen saiatzen ari diren aireportu espezializazio horrek? –eta ez bakarrik, kontuan izan Zaragozakoaren hurbileko adibidea–. Termino operatiboetan, eta epe motzera, “asmakuntza” hori sendotu behar da, aireportua izateak sorrarazitako jarduerak jasotzeko gai baitira, aldi berean oztoporik gabe jarduteko duen gaitasuna areagotuz.

Baina, urrutiago joanez gero, garrantzizkoena orain arte ezezaguna zen eta ia antzeman ezin zitekeen “zerbaiten” ernamuin izatea da: aireportua, GGZrekin eta

industrialde handiekin/Parke Teknologikoarekin batera, **Europako plataforma logistiko-produktibo handi baten** oinarri gisa hartzea.

“Plataforma” hori garrantzizko zerbait da, desberdina, handia eta zaila, eta lortzeak erronka handia adierazten du. Ez dago kontsolidatuta eta ez da bakarrik egingo. Esan daiteke lortzeko aurrerapauso batzuk eman direla dagoeneko. Begien bistan da suposizio hori ukatu gabe adorea eman behar dela askoz ere aurrerapauso gehiago ematearen premia hori betetzeko.

Horixe da Plan honetatik estrategikoki formulatzen den proposamena.

Zertan datza “plataforma” hori? Gune ekonomiko bat, berez eta berriaz prestatutako bat antolatzean –orain ez dagoena– berriak diren jarduerak ezartzeko. Hona hemen jarduera horiek erakartzeko modua:

Karga-aireportua bera existitzea, bereziki kualifikatua eta ohiz kanpokoa den azpiegitura den aldetik.

Europako komunikazio-ardatz nagusietan egotea eta fluxuetatik etekina atera ahal izateaz gain horietatik sortzen diren salgaien pasabidea transformazio-prozesuen bidez maneiatzeari balio erantsia gehitu ahal izango dioten instalazioak edukitzea.

Lehenik, hain aireportu berezia izateak aeronautikaren sektoreari lotuta dauden jarduera industrialak erakartzearen alde apustu egiteko aukera ematen du, punta-puntako sektore gehien enpresa-jardueretan gertatzen den bezala, produkzioa izanik baina balio erantsiaren maila handiena sortzen deneko “zerbitzuen” osagaiak biltzen dituen.

Ordea, “plataforma” hori asmo handiagoaz itxuratzeko, gainerako bi lurralde historikoetan tradizioz kokatuta dauden jardueri baldintza pribilegiatu horiek eskaini ahal izango zaizkie, betiere lurralde horien kokapen behartuak etorkizunari begira garatzeko espazioa eta baldintzak emateko gauza ez denean.

1.2. ARABA ERDIALDEAREN AUKERAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AUKERAK DIRA BAITA ERE

Aukera horiek guztiak ez dira lehian sortzen. Euskal Autonomia Erkidegoak berak ere ez ditu aukera horiek orain arte, eta horrez gain ezin dira Araba Erdialdea ez den beste lekuren batean ezarri aukera gisa. Kontua ez da gainerako Lurralde Historikoei jarduerak “lapurtzea”, jarduerak bereganatzeko gogo biziari erantzunez, kontuan izanik beti uler daitekeela horrela. Izan ere, konparazioz Araba Erdialdean bakarrik eskaintzen den aukera gisa sortzen da, Euskal Autonomia Erkidego osorako ordea.

Hau da, lurralde honetan, “aukerako” gisa logikoki kontzeptualizatuta dagoen honetan, gainerako bi Lurralde Historikoetan ez dauden baldintza bereziak agertzen dira.

Horregatik, Euskal Hiri-Eskualde osoak, jarduera “gehigarri” berri horiek integratzen lagunduz, beren ezarpenaren onurak jasoko lituzke baita ere.

2. BALDINTZAK

2.1. EUROPAN ZEHARREKO ARDATZETAN “EGOTEA”

Fluxuekin “jokoan” aritzeko, aireportuak bideratu ditzakeen horietatik harantzago – azpiegitura espezializatu puntuala den aldetik–, beharrezkoa da ardatzetan “egotea”, salgaien fluxuetatik etekina ateratzea.

Ardatzetan egon izana baliteke, bertan itxuraz egotea, ... eta etorkizunean ez egotea gertatzea. Ardatzetan egotea, azken finean, irabaztea da. Fluxu batzuekiko, batez ere salgaien fluxuekiko posizioa ziurtatzea.

Planetik egiten diren kontsiderazioek Europan zeharreko Ipar/Hego Ardatza izateko exijentzia justifikatzen dute.

Horrez gain, Ardatzetan egoteak Ardatz hori funtsezkoa izaten jarraitzen duela ziurtatzea esan nahi du gainera, berarekin lehian aritzeaz gain bere funtzioan eta fluxuetarako gaitasunean babestu dezaketen beste batzuekiko, fluxu horien pasabidea Europako plataforma logistiko-produktibo handiaren proposamenaren oinarrian dagoela kontuan izanik.

Somport, Nafarroa/Frantzia Ardatz berri potentziala baita Pirinioen Ekialdea zeharkatzen duen pasabidea ere, azken finean Ardatz Mediterraneoan, batere teorikoak ez diren arriskuak dira. Pirinioen mendebaldean Ipar/Hego Ardatza indartzen ez bada, plataforma horren bideragarritasuna ez ezik, horrek Araba Erdialderako adierazi dezakeena kontuan izanik, bere garapenaren joeraren jarraitutasuna bera zalantzan jarriko litzateke.

Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura, Araba Erdialderako lehentasunezko helburua.

Horregatik, eskualdeko eta nazioarteko fluxuak bideratzen dituen sarea osatzea, Etxabarri-Ibiña - Armiñon loturaren bitartez, A-1 autobidearen egungo tarteei jarraipena emanaz eta N-I errepidearen ordezkoko ardatz jarraitu bat ahalbidetuz, Araba Erdialderako lehentasunezko helburu gisa agertzen da. Era berean, eskualde-egiturarako garrantzi berria hartzen dute A-8 autobideko hobekuntzek. Horrek esan nahi du desabantailatutako batzuk bere lurraldetik kanpo topatuko dituela.

Duela hamarkada batzuk, Bilbaoren pisu erlatibo handiak gaur egun autobide aitzindariak diren horien eraikuntza aurreratzea ahalbidetu zuen. Nolanahi ere funtsezkoak izanik, A-8, Bilbao-Behobia eta A-68, Bilbao-Zaragoza autobideei etorkizunari begira ekin zitzaion.

Zaila izango litzateke Bizkaiaren eta Gipuzkoaren garapena ulertzea, beren oinarri industrialaren krisialdiarekin ere, A-8 egongo ez balitz, Kantauri itsasoko ertza egituratzen duen autobidea izanik. Lehenengo belaunaldiko autobidea da, bere tarte batzuetan traza desegokia duena, eta horretarako gaur egun egokitzapen eta zabalkuntza lanak aurreikusita daude Errepideen Planean.

Autobideak egin zireneko lehenengo boladan, A-1 egin gabe geratu zen. Aurreikustera eta emakida lortzera iritsi zen, Kantauriko Autobidea deitu zitzaion. A-1 autobidea zen, Burgos-Maltzaga, Burgos eta Armiñon artean burututakoaren jarraipena, eta N-I

errepidearen ordezeko trazadurarekin. Armiñondik abiatuta Arabako lautadatik eta Deba ibarretik jarraitzea aurreikusi zen, A-8 autobidearekin lotzeko.

Garai hartan, orain ebidentzia den zerbait iragartzen zuen aurrerapenez aitortzen zen ordezeko ibilbide bat bilatu behar zitzaiola N-I errepideak Gipuzkoatik egiten duen bide-tarte zailari. Zeren eta Ardatz baten kalitatea, azken finean, kate-maila ahulenaren arabera neurtzen baita. Eta kate-maila hori, kasu honetan, N-I autobiak Gipuzkoan dituen tarteetan dago, bide hori Europan zeharreko Ardatz izatea bideragarri egiten ez duten horietan hain zuzen ere, funtzio hori bete arren eta hobekuntzak izan dituen arren.

Europan zeharreko Ardatzen erregulazio orokorrerantz

Europan zeharreko Ardatzetatik antzematen den tratamendu desberdinari, batez ere ibilgailu astunei dagokienez, azkena ematen ari zaio. Etorkizunari begira, tasazio homogeen baten bidez orain arte herrialde desberdinetan tratamendu heterogeneoa duen Ardatz horietako pasabidea bateratu beharko dela aurreikusi beharko da, desberdintasunen iturri eta neurri bakar batekin neurtzen den gaia izanik.

Bitartean, erregulazio partzial nazionalen bidez bide errealen eta itxuraz bakarrik dohainikakoak direnen eta bidesaria literalki ezarrita dutenen arteko desberdintasunak murrizteari ekin ahal izango zaio.

Euskal Herriaren kasuan, esan daiteke erregulazio hori jaiegunetan ibilgailu astunei zirkulatzea galaraztearekin sortzen hasi dela. Neurri erregulatzailer hori barneratuta, beste batzuk aplikatu daitezkeela pentsa daiteke, neurri handiago batean sarearen erabilera optimizazioa lortzeko begira, orokorrean eta elkarrekin batera “dohainikako” bideak eta bidesarien pean daudenak kontuan hartuta.

Horrela, bidesari orokortua sare nagusian aplikatu liteke azpiegituren erabilera optimizatzearen. Hau da, bidesaria azpiegitura isolatu bat ordaintzeko bide gisa ez ezik, sarean bere aplikazioa orokortuz –oso zenbateko txikia adieraziko luketen bidesarien bidez eta trafikoaren erantzunaren arabera aldakorrek izango liratekeenak– fluxuak ordezeko bide batetik edo bestetik bideratzeko modua erregulatzeko ere.

Kontsiderazio horiek Araba Erdialderako proposatutako plataforma logistiko-produktiboak Etxabbarri-Ibiña eta Armiñon bitarteko A-1 autobidearen bide-itxiera euskarriztat duen neurrian egiten dira.

Gogoeta horiek oso sustraituta dagoen ikusmoldea ere zalantzan jarri beharko lukete, alegia azpiegituren eraikuntza organismo publikoen erantzukizuna dela pentsatzea, partnership publiko-pribatuaren oraingo adibide arrakastatsuak beren eraikuntzara bakarrik mugatzen ez direla kontuan izanik.

“Y”aren premia

Euskal trenbide-sarearen modernizazioa funtsezko osagai bihurtu da, “Ardatzetan egoteko” bitarteko gisa eta Bilbaoko Portuarekin lotura azkarra eta eraginkorra barneratzeko bitarteko gisa.

Vitoria-Gasteiz – Dax “kate-mailak” duen lehentasuna argi eta garbi aitortu zuten Europako Batasunean, funtsezkoa izanik trenbideen Ipar/Hego Ardatzean.

Batik bat salgaietarako, sare berria, funtsean Arabakoa den proiektu bilakatu da.

2.2. HAZKUNDE EKONOMIKO ETA DEMOGRAFIKO SELEKTIBOA

Hauxe da helburua. Ez bakarrik joerari jarraituz, "jauzi" eten eta selektibo baten bidez baita ere, punta-puntako berrikuntzako sektoreetan oinarritua, horientzat, horretarako baldintzak dauden lekuetan, gune ekonomiko egituratu bat antolatu behar delarik, plataforma logistiko-produktiboaren sorkuntzan oinarritua.

Araba Erdialdeak baldintza egokiak betetzen ditu bere etorkizuneko eboluzio prozesuak bultzatzeko. "Jauzia" egin behar du eta egiteko gai da, orain eskala aldaketari eta lurraldean eta lurraldetik aplikatu behar den strategiari aurre egiteko garaian mugak adierazten dituzten aurreko ereduak gaindituz.

Xedea ez da hazkunde industrial generikoa lortzea, aurreko garaietako, ez eta landa-eremutik hirira populazioa lekuz aldatzea ere. Sektore espezializatuak ditu xedetzat, beste modu batera ez Araban ezta Euskadin ere bilduko ez direnak. Sektore horiek inmigratio kualifikatuagoa, gazteagoa eta aurreikus daitekeenez egoitza-ezarpen dibertsifikatuen ereduak betetzen dituenak eskatzen dituzte. Jadanik ez baita nahitaezkoa hiri kontsolidatuan fokalizatuta egotea.

Jarduerak bildu eta ezartzeko beste mekanismo batzuk

Erakargarri gisa, lurzorua arrazoizko kostuetan eskaintzeko ohiturazko aukera kontuan hartzen jarraitu beharko da. Hala ere, mekanismoek bestelakoak izan beharko dute (eta jadanik izan daitezke). Horren aurrekaria Parke Teknologikoa dugu. Posizio eta eskaintza kualifikatuari balio gehitu beharko zaio, eta ez bakarrik lurzoru ekipatuarenari, zerbitzuez hornituta, eta multzo dibertsifikatu batean egituratuta.

Espazio berri bat eraikitzeak negozioa ere adierazi behar baitu.

Ezin dugu ahaztu apustua selektiboa dela, punta-puntako sektore eta jardueretara zuzendua, eta betiere "berrikuntzazko" espazioaren baldintza bereizgarriek erakarrita. Horrek beste jarduera batzuk, industrialak alegia, "baztertzea" ekar dezake berekin, nolabait esateko tradizionalagoak eta txikiagoak. Baina horien garapena ere lortu nahi da ordea, eta beren eboluzioa, ugalketaren ondorio gisa, sektore berri horien ezarpenaren arabera izango da.

Apustua bikoitza da, "berrikuntzarekin" sektore berriak eta enpresa berriak erakarri nahi baitira, Europa mailan handiak direnak, alegia, aeronautikan, banaketan eta logistikan dihardutenak. Eta, eragile horrekin, joera industrial sendotu nahi da.

Lurraldearen hazkundera eta oreka

Dagoeneko egiaztatu denez, aldi berean hazkunde ekonomiko produktiboa eta oreka lortu nahi izatea, Araba Erdialdearen lurralde zabalean jarduera eta populazioa banatuz, kontrajarrita ager daitezkeen helburuak izan daitezke. Izan ere, lortutako garapen ekonomikoak kontzentratzeko joera izan du.

Hori ez da hain gauza bitxia. Arabak bere jatorrizko asentamendu sisteman ez zuen nolabait ere garrantzizko hirigunerik. Hiriguneak ez dira erraz sortzen populazioa erdigunetik lekualdatzen ez bada eta orain bakarrik lortu du Vitoria-Gasteizek nolabaiteko neurria, nolahi ere hiri ertain bati dagokion horretara iristen ez dena.

Araba Erdialdeak dituen baldintza bereizgarri eta eskusiboetatik abiatu behar da eta horiek aprobeztatzen jakin. Berez, ez da hobe lurralde eredu bat edo bestea. Hala eta guztiz ere, hazkunde orokor selektiboaren alde egindako apustuaren bidez, hala ere adierazgarria izan daitekeena, berez eta horrek guztiak dakarrenarekin, sor daiteke, eta orduan bakarrik, dibertsifikazio handiagoa lurraldearen ezarpen ereduetan.

Berrikuntzaren aldeko apustua horrelakorik proposatzen den lekuan bakarrik egin daiteke, alegia aireportuaren inguruan eta Jundiz/GGZ eta Parke Teknologikoa antolatuz. Berrikuntzatik sortutako jarduera berriak eta handiagoak lurraldean “banatzeko” joera har dezake eta hartu behar du.

Aldi berean, egoitza, Vitoria-Gasteizko eskaintza tipologietan eta prezioetan dibertsifikatzeko prozesu batean, populazioaren hazkundearen oinarrian egon daiteke, gune anitzeko egitura batean, “hiri ertain” izatea lortu ahal izango duten gune batzuen pisu erlatibo handiagoarekin.

Ez da ahaztu behar ezta ere Arabako lurraldeak duen egitura berezia eta zehazki Eskualde Egiturak, eskualdearen jardunaren emaitzazko lurraldean era homogeen batean antolatuta dauden Arabako herrixkekin. Izan ere, egitura hori kontuan hartu, babestu eta apustu berri batean garatu behar izango da.

Horiek, oro har, eskainitako aukerak izan daitezke, jauzi kuantitatiboaren arabekoak, baita eragingo zaion jauzi kualitatiboaren arabekoak ere.

2.3. LURRALDEAREN BARRUKO ANTOLAMENDUA/PRESTAKUNTZA

Horra hurbiltzen da Lurraldearen Zatiko Planak proposatutako lurraldearen egitura berria. Baita banaka esku hartzeko leku zehatzen hautaketa ere.

Plataforma logistiko-produktibo handiari, lurraldearen dinamizazio prozesua eragingo duenari, orain dauden eta proposatu diren hiriko beste pieza batzuk gehitzen zaizkio, eta horren emaitza Planaren proposamenaren funtsa da: Berrikuntzaren Arkua alegia, antolamendu egituratua, Jundizko Industrialdea/GGZ, Forondako aireportua, Parke Teknologikoa, Goiaingo Industrialdea eta abar barne hartzen dituen, aeronautika edota logistika, biltegiatze, produkzio eratorri, karga manipulazio eta abarri lotutako jarduerak burutzen dituzten pieza berri batzuez gain, potentzialki espezializatuak.

“Arkuaren” antolamendua espazio zabalago batean –Langraiz Okatik Legutianoraino– egituratzea, ingurumenari eta nekazaritzari dagokienez balioa duten oraingo landa-inguruneak eta esparruak barneratuz (ibaien ibilguak eta baso-eremuak), baita garapen berriei harrera egiteko aukera ere, hain kontzentratuta egongo ez den lurraldearen ereduari erantzun besterik ez dio egiten, eta beraz Planean defendatzen den zerbait da. Hau da, jarduera ekonomikoak eta egoitzakoak ezartzeko modalitate anitzen adibideetan oinarrituta, hasiera batean erabateko transformazio horretan sortuko diren eskari berriekin gehiago bat etorriko direnak.

Berrikuntzaren Arkua Araba Erdialdeak eskatzen duen “trakziozko” proposamen mota da. Proposamen horrek, batetik, bere ezarpenaren eta garapenaren eskalan oinarrituz integratuta geratuko deneko lurraldearen espazio hori eraikitzea eta, bestetik, Arabako

lurralde osoan eragina izatea aztertuko du, espazioen kokapen, tipologia eta antolamenduen dibertsifikazio prozesuaren garapenerako argumentua eta premia adieraziz, hala eskatu eta legitimatu baita.

Eskatutako transformazioa ezin izango da bakartuta dauden enklabeetan garatu. Sortzeko, Araba Erdialdeko lurralde osoa behar du, zabala, anitza, aldi berekoak eta desberdinak izango diren aukerak eskainiko dituen horretarako prestatuta. Eskala arazo bat da, baina ez bakarrik tamainari dagokionez, batik bat kalitateari dagokionez baizik.

Araba etorkizunerako prestatu beharrean dago zentzu bikoitzean: bere lurraldea egokituz eta, oinarri horretatik abiatuta, marketing lan handia garatuz. “Jauzi” hori egiteko estrategia funtsean ekonomikoa izango da, baina bere helburuak, ekonomiari eta ongizateari lotutakoak, nekez lortu ahal izango dira estrategia egoki eta berariazko baten ezean, eta beti ere lurraldetik bertatik pentsatutako estrategia baten ezean – erabilera berriak ezartzeko euskarri soil bat baino gehiago dena–.

3. PROPOSAMENA

3.1. “JAUZIAREN” OINARRIA: ILUSIOA PIZTEN DUEN PROIEKTUA

Berrikuntzaren Arkua: Proiektuen Proiektua

Jarduera konplexua, oinarrizko bi helburu dituena: batetik, lurraldean orain dauden piezak integratzea, dagoeneko abiarazitako transformazio prozesu baten aztarnak alegia, hala lan erakargarri baten hazi gisa jardun ahal izateko; bestetik, “trakziozko” jarduera berriak barneratzea, Araba Erdialdearen ahaltsun bereizgarriak aprobetxatuz, orain dauden jarduerak integratzea eta lurralde osoan izango dituen eraginak indartzea ahalbidetuko duen euskarria gauzatuz. Eskala berri batean, Arabaren garapen etapa berriaren erakargarri eta ikur gisa hartuko den eta halakotzat jardun ahal izango duen jarduera, alegia.

Beraz, ikusmolde eta izaera bateratua izan beharko du, horrek ezarpen modu jarraitua eta trinkoa adierazi beharrik izan gabe. Bere konplexutasuna, hedadura eta bere izaeraren funtsa bera izango dira proiektuen proiektu izatera eramango dutenak. Ikusmolde bateratu hori azpiegituren euskarri argi baten bidez bermatuko da, baita hasieratik definituko diren pieza batzuen bidez ere, hain zuzen ere ahaltsun horiek garatu ahal izateko, dagokion planteamenduaren beraren funtsa eta justifikazioa adierazten baitute.

Hala eta guztiz ere, jarduera horretan guztiak ez du nahitaez hasieratik zehaztuta geratu behar, jarduera desberdinei, eta antolamendurako eta ezarpenerako bestelako moduei harrera egiteko jarrera irekia izan behar baitu, kokatzeko lekua eskatuko dutenei eta bertan, egituran, ingurumenaren baldintzetan, erabiliko diren zerbitzuetan eta dagoeneko ezarrita dauden beste enpresa batzuen hurbiltasunean ezartzeko leku aproposa topatuko duten horiei.

Aldi berean lurraldearen baldintzetara eta aurretik dagoen asentamendu sistemara egokitu eta hortik onurak lortuko dituen jarduera, egoitza, ekipamendua, espazio libreak –eta horietan espresuki nekazaritzako jarduera bera– barneratuz, osotasun integratu baten zati gisa.

Jarduera honek, dagozkion proiektuez aparte, Araba Erdialdearen lurralde osoari bere eraginak hedatzea ahalbidetuko dioten beste batzuk berekin ekarriko ditu. Era berean, proiektu horiek proposamen eragile honek irekitako bidearen aldaketa prozesuan beren legitimazioa aurkituko dute, neurri handi batean bideragarri izateko aukera emango dien testuinguruko egoera topatu izanagatik. Eta hori, eskari bati emandako erantzun gisa nahiz eskaintza berri gisa, lurraldearen espazioari bere osotasunean – eta jadanik “integratuta”– lehiakortasuna eta kualifikazioa emanez.

Berrikuntzaren Arkua funtsean lehendik dauden eta berriak diren hiri-lurraldeko piezez osatutako proiektu bat izango da, oro har bere izenari zentzua ematen dion edukia eskainiko dioten piezak izanik.

Azpiegituraren elementuak. Berriak eta lehendik daudenak

- 1. Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura.** Arkura hurbiltzeko eta berau egituratzeko elementu gisa.
- 2. N-I.** Garapen berrien eta Vitoria-Gasteizko hiriaren arteko elementu antolatzaile gisa.
- 3. Trenbidearen igarobide posiblea, salgaietan espezializatua.** Araba Erdialdeko bi eremu logistiko-produktibo nagusiak lotzeko: Jundizko Industrialdea-GGZ eta Forondako aireportuko plataforma logistiko-produktibo berria.
- 4. Zeharkako garraio publikoaren linea posiblea.** Bide-tarte desberdinekin, aireportuari bere zerbitzuak eskaini ahal izango dizkio hiri-inguruko tarte batean Lakuarekin lotuz –bere inguruko instalazioekin batera–, ondoren hiriko tarteetan hiritik luzatuko litzatekeena, tranbia modura, Aguraineraino orain dagoen saretik jarraituz, batetik, eta Langraiz Okaraino, bestetik, nolahi ere bere osotasunean metro arin gisa sortutako linea batean.

Pieza berriak

- 1. Forondako plataforma logistiko-produktiboa.** Hasiera batean, honako hauek barne har ditzake:
 - Zentro logistikoa.
 - Aeronautikari lotutako jardueren garapenerako eremua.
 - Biltegiatzeko zona.
 - Kargaren banaketa-eremuaren hedapena.
 - Jardueren parkeak.
 - Zerbitzuguneak.
- 2. Araba Erdialderako “sarbide” berria.** Jarduera sinbolikoa eta jardun bereziak.
- 3. Lehendik dauden hiriguneen sistema.**
- 4. Lehendik dauden jarduera-piezak.** Oro har izaera berritu batez integratzen dira eta honako hauek dira:
 - Los Llanos Industrialdea.
 - Aireportua.
 - Jundizko Industrialdea/GGZ.
 - Etxabarri-Ibiñako Zentro Komertziala.
 - Arabako Parke Teknologikoa.
 - Gojaingo Industrialdea.
- 5. Lurraldea babesteko esparruak.** Arkuak, bere izaerarekiko zirkunstantzialak diren elementu gisa, ingurumenaren edota nekazaritza-produkzioaren ikuspegitik balioa duten lurraldearen esparruak barne hartzen ditu.

3.2. LURRALDE OSOAN IZANDAKO INDUSTRI ETA NEKAZARITZA GARAPENETIK SORTUTAKO SUSPERRALDIA, EGITURA BERRI BATEAN OINARRITUTA

Berrikuntzaren Arkuak garatu ahal izango den lekuetan ezarriko da, transformazioaren eragile izaera emanez. Funtsezko pieza da beraz, proposatutako estrategiari dagokion bakarria ez, ordea.

Lurraldea osorik hartzeak modu berezi batez kokatutako jarduera horrek bere ondorio dinamizatzaileak transmisiorako beste bide batzuen bitartez sorraraztea dakar berekin, beharbada bakarka hartuta garrantzi eta esanahi gutxiago izango duten proiektuek ordezkaturik, kokapenagatik edo edukiagatik, lurraldearen beste esparru batzuetara ondorioak hedatzeko gaitasuna izango dutenak, horrela izaera estrategikoa lortuz.

Elementu berri horiek aukeratzea ez da lan erraza. Lehendik dauden baliabideetan oinarritu eta helburua lortzeko duten ahalmena iragarri beharko baita. Lurraldeak bere osotasunean mota guztietako balio ugari ditu, hala eta guztiz ere, estrategia enklabe eta ardatz batzuetan esku hartzea izango da soilik, guztietan ez ordea, hau da, lehendik dagoen gainerako guztian aldaketarako elementu onuragarriak edo dinamizatzaileak barneratu ditzaketelako baloratu daitezkeen horietan bakarrik esku hartzea. Estrategia horretan, nekazaritza-ekonomiaren eta, oro har, landa-ekonomiaren garapena mantentzea ez ezik hori ahalbidetzea ere zein garrantzitsua den kontuan hartu behar da, eta ekonomia horri lurralde-abaguneak eman. Horretarako, Gorbeia Inguruetako, Arabako Lautadako, Arabako Mendialdeko eta Arabako Haranetako Eskualdeetako Landa Garapeneko Planak (LGP) eskualde-egiturako landa-eremuak garatzeko politiken plangintzaren erreferenteak dira.

Hartutako erabaki guztietatik, Berrikuntzaren Arkutik eta aukeratutako proposamen horietatik guztietatik –haien baturatik baino gehiago elkarmendekotasunak sortzen hasiko den erlazioen aldiberekotasunetik–, lurraldearen egituraketa sortzen da, bestelako irakurketa eta funtzionamendua ahalbidetuko duena. Planteatutako strategiaren isla fisikoa izango den egitura.

Berrikuntza bateratuari eta fokalizatuari buruzko Arkuaren inguruko ikusmoldearen aurrean, zati guztietan eta bakoitzean proposamen eta iradokizun guztien atzetik dagoena kontrakoa da: sakabanatzea, dibertsifikazioa, ezaugarri bereizgarrietara egokitzea, alegia lurraldearen zati bakoitzetik probetxua ateratzea.

Biak, Arku “eragileak” eta proposamen desberdinen multzoak, ilusioa eragiten duen Proiektu orokor honen eta lurralde osorako den honen zati dira, bien artean dagoen kausa-ondorio erlazioa estua izanik.

Horixe da Lurraldearen Zatik Planak hazkundera lurraldearen oreka mantenduz bultzatzeko modua. Faltan botatzen den orekaren bidetik ibiltzeko oinarria lurraldearen egitura berria eratzean eta elementu eta jarduera sakabanatuak garatzean datza, baina estrategikoki kokatutakoak ordea, funtzionamendu orokor berriaren eta bozkario indarberriaren esparruan bakarrik, indar eragilearen arrakastatik datorrena, eskari berriei eta desberdinei erantzunez baita ere ekimen berriak sortu ahal izango dituenak. Orain, etorkizunari nahitaez begira, lurraldearen orekari buruzko ikusmolde erreal bilakatu da.

I.2.

PLANAREN EDUKIAK

Edozein Plani dagozkion edukiak bere dokumentu desberdinetan adierazten dira, idatzizkoetan eta grafikoetan. Memoriak, 4/90 Legean “azalpenezkoa” deitzen zaionak, izaera bikoitza izango luke itxuraz, alegia “deskribatzaile” – lurraldea eta bere aukerak ulertzeko– eta “justifikatzailea”, –hartutako erabakiak justifikatzeko–, eta bereizketa hori hirigintzari lotutako tradizioetik dator, bertan gehitzen direlarik Lurralde Planak ezaugarri bereizgarriak izan arren.

Horregatik, Azalpen Memoria bi atal handitan banatu da (I.1 eta I.2). Lehenengoa –aurreko atalean garatutakoa– modu zabalago batean Planaren Estrategia deitu ahal izango litzaiokeen hori azaltzeko da: lurraldeak eskaintzen duenaren arabera eta batik bat dituen aukeretan oinarrituta lortu nahi dena. Bigarrena Planaren dokumentuetan berariazko determinazioak, lege ezarritakoak (4/90 Legearen 12.1. art.) nola adierazi diren zehazteko da – idazketan topatu diren aukeren eta baldintzen arabera–.

Dena den, Lurralde Planek berez, hau da, “Zatikoak” deitutako horiek, lurraldea osorik kontuan hartzen dutenek, ez dute aurrekaririk; batek ere ez baitu onarpenik izan Euskal Autonomia Erkidegoan. Hirigintzako Planekin homologatzeko joera desegokia antzematen da, beren aplikazioa askoz ere hedatuagoa izanik, desberdintasunak izan arren, erreferente saihestezin bilakatuz.

Asimilazio murriztaile horren bidez, Lurralde Planen hedadura eta edukia mugatu egiten da, eta beraz hiri antolamenduaren erregulaziorako osagai izatera mugatuta geratzen da, Udalek aintzatetsia duten eskumen eremutik garatzekoa. 4/90 Legean espresuki gogorarazten da, eta Lurraldearen Zatiko Planaren determinazioen iragazki gisa, dagokion funtsezko 12. artikulua 2. puntuan.

Beraz, hasteko komeni da Lurralde Planaren erabakien eta edukien eskema zehaztea, hirigintzako planek ez bezala, lurzorua sailkatu edo kalifikatu behar ez duena –horretarako gaituta ez dagoelako alegia–. Zer egiten du orduan? Izango litzateke galdera. Batetik udal jardueraren eremua mugatzea eta, bestetik, aukerak adieraztea. Era berean, hori bai, izaera lotesleaz, aukera horiek non garatu daitezkeen finkatzea, hori egiteko moduari buruz gomendioak ere emanez.

Ikuspegi kontzeptual hori Planaren planoetan adierazten da, batik bat erreferente gisa duen izaerari erantzuten dioten planoak izanik.

i. ESPARRU KONTZEPTUALA

1. Plana hurbilketa estrategiko baten ondorio da, plano bikoitz batean: zabalago bat, Araba Erdialdeak bete dezakeen paperarena eta egin dezakeen apustuarena, eta beste zehatzago bat, lurralde strategiari lotutakoa, lurraldean jardueri eta egoitza ezartzeko modu desberdinei (batzuk berriak izanik) dagokienez.
2. **Aukeren Plan** gisa sortu da. Hala eta guztiz ere, aukerak aprobetxatzea ez da inposatzen den zerbait, Planak sorrarazten ditu eta hori egiteko aukera eskaintzen du... lurraldearen eredu ireki batean.
3. Bere determinazioen hedadura zehazteko “**lurraldearen**” **sektorerako berriazko jarduera-eremu bat** definitzea erabaki da, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eskumena izanik, baita Arabako eta Bizkaiko (zuzenean edo zeharka) Hirigintza eta Ingurumen Sailena ere eta, batez ere, Udalena –beren hiri-plangintzan eta jardueran– dagokien eskumena erabiltzean Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak babestuta.

ii. LURRALDE ANTOLAKUNTZARI BURUZKO 4/90 LEGEAREN 12.1. ARTIKULUAN JASOTAKO DETERMINAZIOAK BETETZEA

4. Antolamenduaren helburuak (a)

- 4.1. Helburu sozioekonomikoak. Jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa egitearen aldeko apustua egin da. Populazioaren hazkundera beharrezko baliabidea da lurralde osoa berriro orekatu eta dinamizatzeko.
- 4.2. Emaitezko helburua: (ber)orekatzea, jarduera eta egoitza ezartzeko modu desberdinak eskainiz. Vitoria-Gasteizek duen erakargarritasunak, eta hainbestetan zalantzan jarritako makrozefaliak, gaur egun duen hiri izaerako pisua lortzea ahalbidetu zion Araba Erdialdeari, eta hortik abiatuta finkatu behar da proposatutako hiri-sistema berria.
- 4.3. Helburuak espezifikazio grafikoetara eramatea: 1. Planoa, Lurralde Egiturarena, etorkizunerako erreferente. Sareak alde zuzenetik hartutako erabaki sektorialen bidez sendotuta agertzen dira.
- 4.4. Lurralde osoa eta bere erreferentziazko banaketa analitiko/propositiboa: 2. Planoa, Lurraldearen Zatiarena, lurraldearen gobernurako lehenengo tresna. Guztientzat jardueran nahitaezko erreferente gisa balio duen desberdintasunaren irakurketa integratua.
- 4.5. Helburu instrumentalak: sortzeko eta aldatzeko jarduera berriak bultzatzea. Jarduera horiek sortzeko lehentasunezko eremu/espazioa mugatzea. 3. Planoa, analitiko/propositiboa, Lurraldearen Gobernurako, Prozesuak: Planaren giltzarria.

Lau eremu-prozesu:

- Lurraldea babestekoa.
- Lurraldea birkualifikatzekoa.
- Lurraldea transformatzekoa.
- Baliabideak erreserbatzekoa.

Hiru, termino positibo eta aktiboetan definituta, oraingo lege esparruaren arabera (5/98 Legea). Laugarrena, nahita jarrera irekia duena berezkoa duen izaerari dagokionez.

Lehenengo hiruretan, organismo publikoen jarduerak behar dira, beren eskumenei dagozkien erantzukizunekin.

- 4.6. Lurraldea babesteko eta birkualifikatzeko prozesua: baztertutako eremuak**, izaera orokorrez, **hiriaren transformazio prozesuetatik** baina babes aktibora bideratutako ekintzak behar dituztenak.
- 4.7. Lurraldea transformatzeko prozesua: hiriaren garapen berrirako jardun eremua ezartzen deneko area**. Hiri garapenaren lehentasuna espresuki eta plan honetan ezarritako baldintzetan ezartzen zaien lurraldearen zatiak dira.
- 4.8. Baliabideak erreserbatzeko prozesua: udal-plangintzak eta arloko plangintzak definitu behar duen lurraldea da**, eta udalerrriak ezarriko ditu bertan bidezkoak diren estrategiak (kontserbazioa, hiri-garapena, etab.).
- 4.9.** Aukerak identifikatzetik esku hartzera: Eragiketa Estrategikoak, lurralde-transformazioaren eremuan (gorriz 3. Planoan). 4. Planoa (Plano gida), Ekintza Egituratzailena eta Eragiketa Estrategikoa.

Berrikuntzaren Arkuak: Lurraldearen Zatiako Planaren eragiketa handia.

Ekintza Egituratzailen fitxak: Administrazio sektorialentzako gomendioak. Eragiketa Estrategikoen fitxak: beren garapenerako determinazioak eta gomendioak. Arauen osagai dira: lotesleak baina gehienbat jarduera egokirako jarraibideak.

Banan banako esku hartzeari ondorioz sortutako esku hartze potentziala gehitzen zaio, Udalei zuzendutako iradokizunen bilduma, alegia.

5. Azpiegitura handien euskarri izateko baliagarriak diren espazioak zehaztea (b)

- 5.1.** Armifon – Etxabarri-Ibiña luzapena: etorkizuneko premia, epe ertain-luzera... neurri handiagoan Berrikuntzaren Arkutik eskatutakoa eta bere garapena organo eskudunari baldintzatua baina, jakina, Araba Erdialdeak bere lurraldearen posizio estrategikoa mantentzen jarraitzeko ezinbestekoa.
- 5.2.** Berrikuntzaren Arkuak, beste Eragiketa Estrategikoek bezala, hirigintzarako modu berriak aztertzea gomendatzen du baita ere, gurutzaguneekin eta loturekin, lurraldearen ikuspegitik pentsatutakoak eta proiektatutakoak.

- 5.3.** Eragiketa Estrategikoen barruko egitura eta bideak, baita lurraldearen konexioa ere, jardueraren kostuak dira, hasierako inbertsio publikoren bat, hala badagokio berreskuratu ahal izango dena, eska dezakeen esku-hartzeari pizgarri bat eskaintzetik harantz.

6. Interes orokorreko ekipamenduen kokapena definitzea (c)

- 6.1.** Legearen agindua izan arren, ez da asimilatzen den eta “lurraldearen” eskumenei aintzatesten zaien zerbait. Beste organismo batzuen –foru organismoak edo Eusko Jaurlaritzarenak– eskumenei eta ekimenei erantzuten dietela eta, izan ere, Udalekin batera Udal Planen bitartez bideratzen direla ulertzen da, batik bat Vitoria-Gasteizkoa. Horrez gain, ez dute lurzorua “erreserbatzea” eskatzen.
- 6.2.** Eragiketa Estrategikoen barruan, eta beren edukien osagai gisa, ekipamendu berezi potentzialak iradokitzen dira. Eragiketa Estrategikoetan ekarpen gisa ematen dena proposamenak izango dira Udalek edo organismo sektorialek bildu eta garatzen badituzte.

7. Irizpideak, printzipioak eta arau orokorrak, hirigintza antolamenduak bete beharrekoak (d) eta (g)

- 7.1.** Legitimazioa. Determinazio hauekiko, goragoko mailakoa delako, (hirigintzan/lurraldean “bere jardueratzat” hartzen den horretan) Lurraldearen Zatiko Planari aintzatesten zaio erabakiak hartzeko legitimazioa. Erabaki horiek, ziurrenez, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari eta Hirigintza Batzordeei/AFA/BFAri lagunduko diete, hiri plangintza zaintzeko dagokien lanean.
- 7.2.** Irizpideak. “lurraldekoa” izan arren, izan ere “hiri eredu” baten errepikapena da: haztea (gutxi gorabehera) baina hirigune kontsolidatuaren mugakide den espazioan. Lurraldearen Zatiko Planetik, gainera, ezartzeko moduen dibertsifikazioaren bat adierazten da.
- 7.3.** Jardun egokiaren printzipioak, beharrezko kuantifikazioarekin batera. Hazkundera lortzeko moduak.
- 7.4.** Kuantifikazioa. Araudia. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak –beren aplikazioak eta garapenak Legearen 12.1. artikularen g) determinazioen mota osatzen dutela kontuan izanik– gehienezko hazkundera, etxebizitzien kopurua eta horren ondoriozko lurzorua kuantifikatzeko agintzen dute udal planetan eta udal planetarako. Lurraldearen Zatiko Plana aurrerago doa eta egoitza gaitasunaren balioen urkila bat ezartzen du, udal plangintzan aurreikusi beharrekoa, eta bertan gehienezko balioa finkatzen da lurzorua gainkalifikazioaren ondoriozko hirigintza garapen desordenatuak saihestearren, baina baita gutxienezko balioa ere lurzoru kalifikatuaren eskasia saihestearren ere.
- 7.5.** Beste Arau, Determinazio eta Gomendio batzuk, Eragiketa Estrategikoetan eta, zabaltasun handiagoaz, Udalek lehentasunez “gune gorrian” jarduteko (eta asmatzeko) eta potentzialki, beste eskumen batzuekin gatazkan (eta

Lurraldearen Zatiko Planaren laguntza espresik gabe), “gune zurian” (biak, 3. Planokoak).

- 7.6. Eragiketa Estrategikoen fitxak. Determinazio lotesleak baina batik bat gomendioak eta, edozein kasutan ere, iradokitzaileak eta mobilizatzaileak izan nahi duten aplikaziorako irizpideak, Eragiketa horiek izan daitezkeenari buruz, ad-hoc kudeaketa organismoek garatuak (Udalen adostasunarekin) edo Udalek beroiek garatuak, eta beren Planetan edo Arauetan bilduta geratuko direnak.
- 7.7. Udalentsako determinazioak eta iradokizunak, Lurralde Zatieta barne hartutako beren udal terminoen analisi propositibotik ondorioztatuak.

Atal honek Plangintzarekiko Eraginen Dokumentuaren gisako eginkizuna betetzen du, udal-plangintzak bildu behar dituen determinazio lotesleak eta iradokizun modura ematen diren beste batzuk adierazten dituen heinean.

8. Birmoldatu, suspertu eta birgaitu beharko diren espazioen definizioa (e)

- 8.1. Araba Erdialdean halako determinazioen ulermen kontzeptuala, bere literaltasunean, gainerako bi Lurralde Historikoetako eremu industrialetara zuzenduta zegoenean.

Hemen, Araba Erdialdean, eremuen antzeko definizioari ekiteko proposamena, baina jarduera ekonomikoen garapen berrietarako, nekazaritzaren jatorrizko jarduera birmoldatuz, ingurune naturalaren transformazioaren eragile ere izanik.

- 8.2. Legearen 12.1. e) determinazioa, Lurraldearen Zatiko Plan honetan zehazten da, Berrikuntzaren Arkuaren Eragiketa Estrategiko orokorrean –maila instrumentalean, bereizitako bi Eragiketa Estrategikok osatua–, Planaren Proiektu Handia izanik. Lurraldearen Zatiko Planaren baliozkotasuna, izan ere, Eragiketa Estrategiko hori abiaraztearen (edo ez abiaraztearen) arabera neurtuko da. Hori Eskualde Egituraren lurralde osorako egiten da.
- 8.3. Beste Eragiketa Estrategiko batzuk proposatzen dira, Planaren proposamenak osatu eta aberasten dituzten antzeko izaera “suspertzaileaz”.

9. Babes ofizialeko etxebizitzetarako eta industrialdeen sustapen publikorako lurzorua azalerak kuantifikatzea (f)

- 9.1. Babes ofizialeko etxebizitzak kuantifikatzea ex-legem konpondutako gaia da, 4/90 Legearen ondoren, ekainaren 30eko 17/1994 Legearen onarpenarekin, hain zuzen ere etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hirigintza plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzko legea izanik.
- 9.2. Industrialdeen gutxieneko kuantifikazioa. Ohitura zahar baten ondorio da, eskuarki onartua, inbertsio horrek publikoa izan behar duela defendatzen duena. Hala eta guztiz ere, gaur egun EBan, inbertsioak errentagarria izan behar duela edo gutxienez galderarik izan behar ez duela inposatzen da,

subentziorik gabe. Beste adibide batzuek (Fort Worth) erakusten digutenez, proiektu handiek ere ez dute zertan ekimen edo inbertsio publikoen mende egon.

- 9.3. Hemen (Lurraldearen Zatiko Plan honetan) Berrikuntzaren Arkuan (guztientzat eta lurralde osorako) eta estrategikoki aukeratutako beste jardueretan ere helburuak zehaztea, ondorioztatzea eta adieraztea Eskualde Egitura osorako eta bere aukeren garapenean.

10. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan bildutako determinazioak garatzeko beharrezko irizpideak, arauak eta printzipioak (g)

- 10.1. Eskualde Egiturari dagokionez Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan bildutako agindu estrategikoaren kontsiderazioa Lurraldearen Zatiko Plan honetan bildu eta garatu da. Bere proposamenak eta zehazki Berrikuntzaren Arkua, multzoaren zerbitzura, Eskualde Egituraren aukeren isla eta zehaztapena besterik ez dira, eskala egokian erantzunak aztertu eta diseinatu ondoren.
- 10.2. Kuantifikaziorako aginduei eta ondoriozko hazkunde posiblearen mugari dagokienez, horiek espresuki agertzen dira bilduta Lurraldearen Zatiko Planaren Erregulazio Orokorrean, zehatzago esanda Hazkunde Berrien Erregulazioari buruzko atalean HBE-5 "Egoitza Kuantifikazioa".

II

PLANAREN TRESNAK

II.1.

LURRALDEAREN EGITURA

Hona hemen Lurralde Plan baten funtsezko ezaugarriak:

- **ikuspegi orokorra**, administratibo hutsak ez diren mugen bidez baldintzatu gabea;
- **eskala handia**, guztia ez "ikustea" dakarrena, adierazgarria dena baizik;
- **gertakariak nahita interpretatzea**, etorkizuneko proiektiorako;
- **euskarri fisikoa baliabide gisa aintzatestea**, bere baitan duen adierazgarritasun ekonomikora mugatu gabe;
- **selektibo izatea**, estrategiko izateko,

eremuaren arazoak eta aukerak aldeztu aurretik aztertu ondoren, Planaren **lurralde eredia** sortzen da emaitza gisa.

Irekitzat jotzen den eredia, honako hauek behar dituen neurrian:

- i- administrazioen arteko adostasuna proposatutako esku-hartzeen gauzatzea bideratzeko; eta,
- ii- udalen erabaki askatasunaren laguntza ekintza berriak bultzatzeko, betiere toki administrazioak ekimenerako eta kudeaketarako duen gaitasunaren emaitza gisa.

Ereduaren nolakotasun horrek ez du salbuesten orokorrean lurraldearen oinarritzko antolamendu-eskema bat zehaztetik, planteatutako estrategiarekiko esku-hartze desberdinak modu koherente batean antolatzea ahalbidetuko duen erreferente fisiko gisa eta elkarri sinergiak sorrarazteko aukera eskainiz: **lurraldearen egitura**, alegia.

1. planoa

LURRALDEAREN EGITURA

SAREAK

Kontzeptu zabala da, eta bertan garrantzi desberdina duten fluxu bideratzaileak barne hartzen dira, garraio-bide desberdinei lotutakoak, lurralde osoan garrantzia izanik. Komunikaziorako azpiegiturak, lurraldearen egituraren definizioan ezinbesteko elementuak izanik, hemen ez dira biltzen ikuspegi sektorialari dagokion hierarkia funtzional zorrotzean oinarrituta, lurraldearen nolakotasunaren aintzatespenean oinarrituta baizik, bereizitako eremuen lotura gisa jarduten duten aldetik.

IBILBIDE LUZEKO FLUXUEN BANDA

Especializazio funtzionala estatu zein nazioarteko ibilgailuen mugimenduetan.

Ibilgailuen zirkulazio-bide handiak A-68 autobideak eta Etxabarri-Ibiña – Armiñon luzapenak adierazten dituzte lurraldearen egitura berrian, Rivabellosatik gertu txertatuz falka itxura duen lurralde-eremua osatuz, dituen trazaduren noranzkoak –Bilbaorantz bata eta Deba ibarrerantz bestea– zedarritzatuta.

Eskualdeko eta nazioarteko fluxuak bideratzen dituen sarea Etxabarri-Ibiñatik Armiñonera luzatu nahi da, Araba Erdialdean bultzatu nahi den lurraldearen transformazio proposamenarekin traza koherente bat eginez. N-622arekiko gurutzagunetik Gipuzkoarekiko muga probintzialeraino Eibar – Vitoria-Gasteiz autobidearen traza jasotzen da, plangintzaren dokumentu sektorialetan jadanik onartuta dauden aurreikuspenekin. Konexio hori Lurraldearen Zatik Planaren proposamen estrategikoaren –Berrikuntzaren Arkua– argumentua eta oinarria da, eta ingurunearekiko integrazio egokia ziurtatu beharko du, bide-sarearen beste elementuekiko loturak erabakiz, baita lurraldearekiko duen posizioa eta bere ertzetako paisaiaren tratamendua ere.

A-68 autobideak bere oraingo ezaugarriak mantentzen ditu. Hala eta guztiz ere, bere loturek eskaintzen dituzten posizio-aukerak eta irisgarritasuna gauzatzea ahalbidetuko duten jarduerak gomendatzen dira.

LURRALDEAREN BANAKETARAKO FLUXUEN BANDA

Eskualde-eskalako herriz kanpoko mugimenduen espezializazio funtzionala.

Halakotzat N-I errepidearen ibiltarte guztia hartzen da, Vitoria-Gasteiz – Miranda de Ebro bide-tarteko galtzadaren bikoizketa lanei ekin ondoren. Autobiak “hiri-banaketaren” funtzioa gainjartzen dio funtzio honi, N-102 eta N-240 autobideek zedarritzatutako arkuan, eta funtzio horrek handitzeko joera izango du, bere kokapenaren arabera, Vitoria-Gasteizko hirigunearen eta Berrikuntzaren Arkuan sortuko den guneko logistiko-produktibo berriaren arteko antolamendurako elementu gisa jarduten duenean.

Halakotzat N-622 ere barne hartzen da, A-68rekin lotzen dena, eta N-240 (dagoeneko aurreikusitako zabalkuntza eta hobekuntza lanak burutzen ari direnean), Bilbaorekin lotzen duena.

ELKARREKIKO LOTURA BEREZIAK

Bide-sareko elementuen arteko fluxuen trukeguneak, lurraldearen ingurunean eragindako ondorio potentzialekin.

Lehendik dauden konexioak edo konexio potentzialak adierazten dira, azken horiek etorkizunean gauzatu ahal izateko lurraldearen ikuspegitik iradokiak. Kasu batzuetan eta besteetan, azpiegiturak eragindako ingurunearekiko ondorioak baloratzen dira. Beren hautaketak irisgarritasun bereizgarriaren lorpenean oinarrituta dauden eta eremu batean sortzen diren baldintza bereizgarrien balorazio positiboa egitea eskatzen du.

ESKUALDEKO LOTURAGUNEAK

Eskualdearen lotura eta integraziorako oinarritzko sarea.

Beren jarraitutasunaren arabera Lurralde Zati desberdinen eta dagozkien Eskualdeen arteko loturetan ahaltasun berezia hartzen duten bideak barne hartzen ditu.

Bide horiek gehienbat orain dauden errepideek osatutakoak dira, kasuren batean traza berria duten bide-tarteak gehituz.

Lautada-Haranak erlazioa (Ekialdea): Honako errepide hauek kateatzetik eratzten da: A-102, A-2130, A-4119, A-132, A-3112, A-4135, A-3110, A-4140, A-4112 eta A-4130 –arloko plangintzan aurreikusitako egokitzapen eta hobekuntza lanekin–, eta errepide horiei traza berriko bide-tarte txiki bat gehitzen zaie, A-3138 eta A-3020 lotuz N-I autobiarenean iparraldera Araiarako sarbideari jarraitutasuna ematearren, eta lehenengo bien lotura gisa, Vitoria-Gasteizko Udalak hirigunearen hegoaldean aurreikusitako tokiko mugikortasun-ardatza. Aritzeztik Agurain/Araiara ibilbide jarraitua egituratzen du Lautadaren hegoaldetik.

Lautada-Haranak erlazioa (Mendebaldea): A-2622aren ibilbideak eta A-2625aren bide-tarteak osatzen dute, eta azken honek jarraitutasuna ematen dio Arabako Errepideen Plan Integralean jadanik programatuta dauden hobekuntzarako jardueren bidez. Euskadiko Errepideen Plan Orokorra aurreikusitako bide-tarte berria biltzen du, alegia Olabari / Los Llanosko Poligonoa / N-I, A-2622 saihezbidea osatzen duena Langraiz Okatik igarotzen denean. Zeharka, Haranen eskualdea zeharkatzen du, Langraiz Okatik Bovedaraino.

Mendialdea-Haranak erlazioa (Ekialdea): A-126, A-3130 eta A-3126ak osatutako ibilbidea, Ega eta Inglares ibaien haranak antolatuz. Arabako Errepideen Plan Integralak hobekuntzarako jarduerak biltzen ditu ibilbidean zehar, Santikurutze Kanpezu eta Zambrana artean mugatzen dena.

Mendialdea-Haranak erlazioa (Mendebaldea): A-2122 eta A-2625 errepideetan zehar itxuratzen da, Zubillaga Osmarekin lotuz. Era berean, Arabako Errepideen Plan Integralean aurreikusitako hobekuntzekin.

Banaketa eta antolamendurako arkuak: N-124 eta N-I errepideek, Miranda de Eborako aurreikusitako saihezbideak eta A-2122ak osatua, kateatzean Mendialdea-Haranak erlazioaren Ekialdeko eta Mendebaldeko bide-tarteei jarraitutasuna ematen dietenek, aldi berean tokiko loturak eta estrategikoki kokatutako eta bi azpiegitura handiren, alegia A-68 eta A-1en gurutzaguneak zehaztutako eremu baten garapenari laguntza emanez.

LURRALDEAREN ERLAZIO ARDATZAK

Konexio-bideak inguruetak lurraldeekin

Lurraldearen bide-sare nagusiaren osagaietako batzuetatik bitan adarkatuz Euskal Herriko gainerako Lurralde Historikoekin edo beste Autonomia Erkidego batzuekin dagoen lotura konpontzen duten errepideek irudikatuta agertzen dira.

A-623, Legutiano / Durango.

A-627, Urbina / Deba ibarra.

A-132, Arkaute / Nafarroa.
A-2124, Vitoria-Gasteiz / Condado de Treviño / Logroño.
A-2521, Murgia / Urduña.

ESKUALDEKO ETA NAZIOARTEKO TRENBIDEA

Ibilbide luzeko trenbide-garraiorako sare berria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean aurreikusitako trazadura barne hartzen du, euskal Y-an oinarritutako egitura berrirako. Araba Erdialdearen kasuan, linea berriak ipar-hego norabidea hartzen du Vitoria-Gasteizen ekialdetik, Forondaren ingurunearen garapen-aukeraz ahaztuta eta urrun. Hirirako sarbide berriak hirigunea inguratzen du, erdialdea zeharkatzeari utziz, eta horrela ondoren orain dagoen linearen posizioa berriro hartzeko eta GGZren funtzionaltasuna mantentzeko. Eskualde Egituraren hegoalderantz jarraitzen du trazadura berri baten bidez, N-I errepidearen ekialdera.

GARRAIO ARINEKO TOKIKO LINEA

Garraibide berri bat barneratzea eta asentamendu-sistema sendotzea.

Orain dagoen ibilbide luzeko linea aldi berean erabiltzea proposatzen du (Iruña Oka, Vitoria-Gasteizko Dato eta Aguraingo geltokien artean) "aldiriatarako" asimilatu daitezkeen zerbitzuen bidez, eta funtsezko lau premisetan oinarrituta: landa-eremuko ibilbidean bide-tarte berriak eraikitzeak aukera, orain dagoen lineatik aldenduz, Lautadako asentamendu-sistemara hurbiltzea ahalbidetuko dutenak; Aguraindik Vitoria-Gasteizko geltokiraino trenbidea berriro erabiltzea, aurreikusitako ibilbide luzeko traza berriak utzitakoa; Vitoria-Gasteizko erdialdetik egindako ibilbidearen jarraipena, garatzen ari diren proiektuetan aurreikusitako tarteetan, eta linearen luzapena logistika eta aireportuaren eremu berriraino. Langraiz Okarako linearen hedapenak orain dagoen bidea erabil lezake edota N-102 errepidearekiko paralelo joateko komenigarritasuna azter liteke, Vitoria-Gasteizko garapen berriei argitasun handiagoaz zerbitzatzeko eta Langraiz Okara N-I/N-102 ingurunekeo jardura berrien bitartez helduz. Linea horretarako nahikoa erabilera anitzekoa izango den garraibide bat behar izango da bi trazadura motara egokitzeak (tranbiakoa hiriko ibilbideetan eta trenekoa landakoetan), baina horrez gain garraio publikoa bultzatzearen alde apustu egin beharko da Araba Erdialdeko hazkunde berrien garapena bultzatu eta sustatzeko.

IBILBIDE TEMATIKOAK

Ingurumenari dagokionez eduki handia duten ibilbideak, zeharkatzen duten eremuaren bereizgarri.

Ibilbide zedarrizatuak, orain dauden komunikazio-azpiegiturak euskarritzat dituztenak, lurraldearen eremu desberdinak dagozkien kalitateetan oinarrituta bereizteko modu gisa zeharkatzen duten ingurunekeo baliabideen arabera proposatutakoak.

Trenbidearen ibilbidea Baia ibaian zehar, Bilbaorako salgaien garraioari dagozkion eta Baia ibarra zeharkatzen duten azpiegituren erabilera eskasa aprobetxatuz. Izaera zientifiko-naturala eta kulturala duen ibilbidea.

Ullibarri - Araia arteko aisia-ibilbidea, A-3012 eta A-3014 tokiko errepideak euskarritzat dituen, eremuaren aberastasun ornitologikoaren arabera.

Zadorrako nekazaritza-ibilbideak, A-4006 errepidearen gainetik eta paralelo bat N-I errepidearen hegoaldera, Lautadako nekazaritzari dagozkion kalitateak aprobetxatuz.

Ingurunearen aprobetxamendurako ibilbidea, Lizarra-Mekolalde trenbidearen plataforma zaharra berriro erabiliz, baliabideen aniztasunetik ondorioztatzen delarik bere argumentua eta bere aprobetxamendua ibilbidean zehar.

Arabako hegoaldeko ibilbidea, A-2124 errepidea euskarriztat duela, Condado de Treviñoren espazioa lurraldearen funtzionamenduan integratzeko eta Mendialdearekiko erlazioa sendotzeko modu gisa.

Ipar-mendebaldeko ordezkoko ibilbidea, N-622 errepidearen lehenengo bide-tartearen ordezkoko ibilbide bat integratuz eta geroago zuzendutako errepide zaharrean eutsiz, Gorbeiako Parke Naturala Araba Erdialdearen bihotzera hurbiltzeko asmoz.

Santiago bidea, Erdi Aroko galtzadan zeharreko erromesbidea, San Adriango tunelaren hegoaldeko ahotik (Zalduondo) Rivabellosaraino (Erribera Beitia) doana; hortik Burgosen barneratzen da.

ANTOLAMENDUAK

Erabilera nagusi baten arabera definitzen eta bereizten diren espazioak barne hartzen dira. Hala eta guztiz ere, espazio hauek lurraldearen osotasunaren eskala handian interesa izango dute eta lurraldearen ikuskera funtzional eta espazialek egitura-izaera gaineratzen dien jarraitutasuna edo antolamendu-kualitatea azalduko dute.

LOGISTIKA ETA PRODUKZIOA

Salgaien fluxuen intermodalitateko ekonomia eta kontrol-jardueretan espezializatutako espazio-egitura.

Forondako aireportuaren inguruan antolatutako produkzio eta logistikako espazio berriaren sorreraren inguruan sortutako egitura hartzen du, honen bidez gaur egun dauden produkzio-eta teknologia-espazioak egituratuko dira, jarduera berriak burutuz.

Berezitasun handiko eta espezializazio handiko lurralde-espazioa da, lurralde-espazio hau egokia gertatzen da lurzoru-behar handiak dituzten eta pistak hurbil behar dituzten produkzio-jarduera berriak erakartzeko –aireportuei dagokien sektoreari lotzen zaizkionak, esate baterako– eta aireportuko salgaien trafikoari oso lotzen zaizkion jarduerak erakartzeko, azken hauetarako zama-hausturako eta truke modalerako guneak eskain ditzake. Mugimendu-intentsitateei logistikak gaineratzen duen kontrol estrategikoa ezartzen zaie.

Jarduera berri hauek lurraldean jada garatzen ari diren jardueri gaineratzen zaizkie eta azken urte hauetan enpresa-jardueri bultzada handia eman dieten modernotasun-prozesuei eutsi beharko diete.

Berrikuntzaren Arku gisa bere egiten den logistika eta produkzioko egitura hau Langraiz Okatik Legutianora garatuko da, ipar-mendebalde/hego-ekialde norabide nabarmenarekin. Jarduera-ardatz dinamikoa osatuko du, eskualdeko eta nazioarteko fluxuak bideratzen dituen saretik irisgarritasun handiena bermatuta izango duena.

INGURUMENA ETA NEKAZARITZA

Natura-ondarea eta nekazaritza eta basozaintzakoa mantentzeko zereginean espezializatutako espazio-egitura

Eusten dituzteneko erliebean eta zehazten dituzteneko zuhaitzien jarraitutasun-sekuentzian oinarriturik ingurugiro-egitura sendoa eta erabat bereizgarria finkatzen duten esparru guztiak barne hartzen dira.

Egitura honek, batetik, Arabaren erliebearen ezaugarri nagusia nabarmentzen du: gailurrak, haranak eta lautadak tartekatuz iparretik hegora ugaltzen den ekialde-mendebalde linealtasun

nabarmena. Espazio-sekuentzia honek ingurugiro-kalitate handiaren, ingurunearen kualifikazio handiaren eta ondare "natural" handiaren sinonimo gisa hartzen dute esanahia Arabako lurraldearen osotasunerako.

Eta, bestetik, nekazaritzak produkzio-jarduera gisa betetzen duen zeregina aintzatesten du baita, neurri handi batean ere, ingurumenari dagokionez Araba Erdialdeak ezaugarritzat duen kalitate handiaren eragile gisa ere.

ESPAZIOAK

Berriazko jardueri edo erabilerei lotuta, esanahi handiko lurralde-piezak osatzen dituzten eremuak barne hartzen dituzte. Aldi berean beste egitura-elementu batzuk sendotzen dituzte eta, oro har, hauekin uztartzen dira, eta osotasun mailan duten kualifikazioaren arabera ahalmen fokalizatzaile handia duten enklabeak sortzen dituzte.

BALIO ENBLEMATIKOA ETA FUNTZIONALA DUEN ESPAZIOA **Balio sinbolikoa duen lurralde-nodoa.**

Kualitate eta ahaltsun bereziak (kulturalak, aisiakoak, produktiboak) dituen espazioa, "lurralderako sarbide" berri bilakatzeko estrategikoki kokatua. Balio sinboliko handiko proposamena da, arloko organismoek aurreikusitako bide-jardueretan oinarritua, eta Vitoria-Gasteizko hirirako eta Berrikuntzaren Arkurako sarbide berriaren izaera hiritarra azpimarratzen duena.

KONEXIO ETA BANAKETAKO ESPAZIOA **Geografian estrategikoki kokatutako enklabea.**

Baia, Zadorra eta Ayuda ibaien bokalearekin bat egiten duen lurralde-esparrua da, bertan Ebro ibarra zabaldu egiten da behe-lurzoruek eraginda. Bestalde esparru honetan gertatzen da maila desberdineko azpiegituren gurutzagunerik nagusia eta azpiegitura hauek, maila desberdinetan erlazionaturik, lurraren kotaren antolamendua baldintzatzen dute.

Proposamenak abiarazi diren tokiko ekimenen garapena bultzatzen du, Mendialdea-Haranak (Ekialdea eta Mendebaldea) ibilbideen arteko konexiorako eta inguruko lurralderako fluxuen banaketara arku gisa jardun dezaketen tokiko bideek eskainitako gaitasun egituratzailea eta irisgarritasuna baloratuz eta horrela ezkutuan dauden eskarien aurrean eremuak erakartzeko ahalmena areagotuz, Miranda de Ebroren hurbiltasunak eragin baitu eskari horietan.

IZAERA NATURALEKO ESPAZIOA **Parke Natural gisa mugatutako eremuak.**

Araba Erdialdean mugatu diren parke naturalak barne hartzen dira bertan. Parke Natural hauek dagokien legezko antolamenduaren aginduek baldintzatuta daude.

Parke hauetako bakoitzak bere inguruko lurraldearekiko egoera erlatibo desberdina dute. Parke izateak berak eragiten dituen ondorioak ere aldakorak dira eta, gainera, biztanleentzako balio emblematikoa bereizgarria dute. Lurraldearen ikuspegitik banakatzeko lurralde osoan kalitatezko espazioen balio positiboa eta aktiboa azpimarratzen laguntzea adierazten du.

HIRI SISTEMA

Eusko Jaurlaritzaren eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundien arteko adostasunez, Araba Erdialdeko hiri-sistemaren kontsolidazio-prozesuan bultzatu nahi den hierarkizazioa biltzen du.

VITORIA-GASTEIZKO ERDIGUNEA

Lurraldearen hirigune nagusiaren kontsolidazioa.

Vitoria-Gasteizek lurraldean betetzen duen rola aintzatesten du, bere makrozefaliari buruzko eztabaida gaindituz eta hirigunearen nahiz, potentzialki, udalerriko entitate txikiagoen hazkundera bermatuz.

HIRI ESPAZIO NAGUSIAK IZATEKO BOKAZIOA DUTEN GUNEAK

Hiri ertainen sistema eratzea.

Aldi berean, bi kategoria barne hartzen ditu:

Hazkunde selektiboa: Garrantzizko hazkundera bultzatu behar deneko udalerriak.

Agurain eta Iruña Oka hiriburuaren gune diren aldetik udalerririk horietako hazkunde selektiboa bultzatzea, Araba Erdialdeko hiri-sistemaren barruan bigarren mailako hirigune izan daitezen.

Eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera.

Alegria-Dulantzi, Asparrena, Kanpezu, Legutiano, Otxandio eta Erribera Beitia udalerririk bereizten dira, lurralde osoaren barruan hirugarren mailako guneak sendotzeari ekiteko.

ZEHAZTU GABEKO HAZKUNDEA DUTEN DENTSITATE TXIKIKO GUNEAK

Ordezko habitatak dentsitate txikiko egoitza-eskaintza gisa.

Arrazua-Ubarrundia, Burgelu, Urkabustaiz, Valdegovia, Zigoitia eta Zuia udalerririk bereizten dira Vitoria-Gasteizkoaren ordezkora izango den egoitza-aukera garatzen laguntzeko.

NEURRI TXIKIA DUTEN ORAINGO HIRIGUNEAK

Neurri txikiagoa duten hiriguneen karakterizazioa.

Bi talde bereizten dira:

Egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuko bilbea).

Añana, Armiñon, Berantevilla, Bernedo, Lagran, Lantaron, Arraia-Maeztu, Peñacerrada-Urizaharra, Harana, Zaldondo, Zambrana eta Ubide udalerririk biltzen ditu.

Populaketa sakabanatuko bilbe unitarioko egitura duten guneak.

Heri guztiek oraindik ere populaketa sakabanatuko bilbe unitarioa duten udalerririk barne hartzen dira: Barrundia, Iruraiz-Gauna, Kuartango, Ribera Alta eta Donemiliaga.

II.2.

LURRALDEAREN GOBERNUA

“Gobernatzeak” **lurraldearen prozesuak orientatzeko jarraibideak finkatzea** esan nahi du, Araba Erdialdean sorrarazi nahi direnak nahiz espontaneoki garatzeko joera dutenak.

“Gobernuaren” ekintza tresna zehatzen eta berariazkoen bidez burutzen da, Lurraldearen Zatik Plan honetan oinarritzko hiru gaiekin lotuta agertzen direnak:

- i- esparrua osatzen duten lurraldearen espazio desberdinen artean dauden desberdintasunen interpretazio positiboa;
- ii- dagozkien eremuak eboluzio-prozesu batzuetan zein besteetan eustea beren kalitateen arabera, horrela lurraldearen garapenaren iraunkortasuna eta bere ahalatasunen balorazioa ziurtatzea ahalbidetzeko; eta,
- iii- lurraldearen eraikuntzan esku hartzeko “moduen eta lortutako emaitzen arteko mendetasuna aintzatestea.

LURRALDE ZATIAK

Araba Erdialdeko lurraldea ez da osotasun homogeen bat. Errealitate geografikoak, sozialak nahiz funtzionalak ez diote eredu bakar horri erantzuten. Bertako esparruen desberdintasunak aberastasun faktorea osatzen du osotasunerako, lurraldearen aukerak euren osagarritasunaren arabera gehituz.

Desberdintasunaren balorazio positiboa da esplizitu izatera eramaten duena, lurraldearen “nortasun” bereizgarri hori **Lurralde Zati**en bitartez aintzatzetsiz.

Zatiak nahita identifikatzen dira, eta horrek bereizteko hartutako irizpideak nahiz beren kalitateei emandako pisu erlatiboa hautatzea dakar berekin, beren **lurralde-bokazioa** zehazteko baina baita horrek eskaini ditzakeen aukerak ere **jarduteko erreferente** gisa. “Zatiak”, beraz, homogeenak ez diren eremuak dira, pisu erlatiboa hartu eta lurralde osoan bakarka jardun dezaketenak.

Lurralde osoan, bereizitako ezaugarriak izan arren, zati guztiek berdin “balio” dute. Bakoitzak multzoarekiko hartzen du adierazgarritasuna. Hau da, ezer baino lehen, osotasun baten zatiak dira: Araba Erdialdearen lurralde osoa. Zati horiek identifikatzeko kokatu egiten dira, letra eta zenbaki batez, Araba Erdialdea koadrikula batean irudikatuz.

Mugaketa ez da muga administratiboetara baldintzatu. Hori egiteko irizpideak desberdinak izan dira eta, neurri handi batean, elementu topografikoetan edo lehendik komunikazio-sarean dauden elementuetan oinarritu dira. Askotan “banaketa-lerroa” honako hauetan oinarritzen da: hegaletako malden etena, mendi-zerren gailurrek osatutako lerroa, ibai-sarearen elementuak, zuhaitzien ertzak, nahiz udal mugetako tarte partzialetan mugaketaren irizpideetara egokitzen direnean.

“Zatiak” **geometria aldakorrek** balira bezala hartu behar dira, bi arrazoi hauengatik:

- i- beren muga garapenerako plangintzaren bidez doitasunez egokitu beharko delako; eta,
- ii- lerroa zehazki horietakoren batean esku-hartze berriak gehitzea gomendatzen duten etorkizuneko aukeren arabera egokitu ahal izango delako.

PROZESUAK

Lurraldearen esparru desberdinei eragiten dieten **Prozesuen** determinazioa Lurraldearen Zatiko Planaren tresna nagusi bihurtzen da lurraldearen eboluzioaren dinamika orientatzeko.

Lurraldearen Zatiko Planak “lurraldearen eredu irekiaren” alde egin duen apustua aipatu da dagoeneko, hain zuzen ere **adostasunez jardutea** eta **beste instantzia administratibo batzuetarako proposamen askatasuna** ziurtatzeko. Baina askatasun hori ez da ulertu behar edozein lekutan edozein gauza egin daitekeela pentsatuz.

Lurraldearen esparruak mota desberdinetako “prozesuen” mende egotean jarduteko “esparru” bat sortzen da, hautazko ekimenei baldintzak ezarriz.

Erreferentziazko esparru horrek Lurraldearen Zatiko Planak proposatutako Lurralde Egitura indartzeko esku-hartze ekimenak orientatzea ahalbidetzen du, batetik, Araba Erdialdeko lurraldea “eguneratzeko” proposamenak deitu ahal izango diogun hautazko esku-hartzerako aukera estrategikoak non dauden ezagutuz. Bestetik, babes-tratamenduen mende dauden espazioak adieraziz. Lurraldearen “joko-taula” berriaren arauak definitzen laguntzen duten bi muturrak, alegia.

ERREGULAZIO OROKORRA

Araba Erdialdean aplikazio unibertsala duten determinazioen bilduma osatzen du, “jardun egokiaren eskuliburu” gisa lurraldean esku hartzean kontuan hartu behar diren oinarriko printzipioak eskaintzen dituena.

2. plano

Lurraldearen gobernua:

LURRALDE ZATIAK

Lurraldearen banaketa operatiboaren gida-plano bat da, eta bertan hamaika lurralde-zati biltzen dira.

B-1 LURRALDE ZATIA

Udalerrriak:

Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Legutiano, Otxandio, Agurain, Donemiliaga, Ubide, Vitoria-Gasteiz, Zaldondo eta Zigoitia.

Izaera:

Lurraldearen espazio honetako eszenografia erabat markatuta dago Elgea mendilerroko hegalean, Aldaia mendien eta Urrunaga inguruetakoko Gorbeia inguruko mendien presentzia eta ingurumen-balioengatik.

Araba Erdialdeko bi urtegiak –Ullibarri eta Urrunaga– barne hartzen dituen esparru eteneko lurralde-zati bat da eta bi urtegi hauek dira lurralde-zati honen zehaztapenaren funtsezko elementu. Lurralde-zatia, haatik, ur-azalerak baino askoz ere lurralde-esparru zabalagoa hartzen du, urtegi hauen ur-hartunerik nagusia den Zadorra ibaiaren goi-tartea barne hartzen du.

Urtegiak –Natura 2000 Sarea integratzeko proposatutakoak– Lautadaren nekazaritzarako espazio zabala eteteko elementua dira, mendialdeari dagozkion baso eta artzaintzako espazioekiko muga gisa jardunez. Beren isolamendu geografikoak –kokatuta daudeneko kubetak eraginda– ingurunean benetan dena baino espazio urrunagoa eta desberdina izatea eragiten du, natura “urbanizatuan” aisiarako eskaria deitu ahal izango diogun hori betetzeko balio handia hartzea ahalbidetuz, hiriguneak urez hornitzeko dagokien lehentasunezko funtzioarekin kontraesanean.

Naturari eta ingurumenari dagokienez dituen balioak zaintzeko asmoak eta premiak erabat baldintzatutako Zatia da. Horren ondorioz, ez da transformazio handiak izango dituen eremutat hartzen, bere kalitateengatik eta lurraldean berez betetzen duen hain zeregin positiboarengatik.

Udalaren erabakiaren arabera izango da Zati honen asmo handiagoko proposamena: uraren erabilerari lotutako aisiarako espazioa sortzea, gaur egun urtegiek jasaten dituzten presio negatiboak ezabatzea ahalbidetuko duena. Esku-hartze horrek, ekiten zaionean, kalitate handiko konponbidea eta integrazioa eskatuko du ezartzen den inguruneari dagokionez.

B-2 LURRALDE ZATIA

Udalerrriak:

Arrazua-Ubarrundia, Kuartango, Iruña Oka, Ribera Alta, Erribera Beitia, Urkabustaiz, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia eta Zuia.

Lurralde-zati honetan Badaiaiko Brava mendilerroaren esparrua ere barne hartzen da.

Izaera:

Baia ibaia egitura-elementu gisa jarduten dueneko zati zabala, Gorbeia mendigunetik Ebron bere urak isurtzen dituen arte bidea eginez, Arabako erliebea zehazten duten iparralde-hegoaldeko hausturetako bat eratuz, norabide nagusiei (ekialdea-mendebaldea) nabarmen kontrajarrita, hain zuzen ere bereizgarri dituen mendilerroa, lautada eta ibarren alternantziak markatutako norabideak izanik.

Zati honek, iparraldean, Gorbeia Parke Naturalaren hegoaldeko zatia barne hartzen du, baso-paisaia alegia, euskal kulturaren kasu enblematiko honetan. Bere hedadura osoan, zatiak lurraldearen falka gisa jarduten eta bertan lurraldearen ia eremu eta paisaia guztiak agertzen dira ordezkatuta. Arkamo, Gibijo eta Badaia mendilerroen eta Gorbeia inguruko mendien berezitasun topografikoak eta ingurumen-kualitateek urbanizazio-prozesutik kanpo geratzen diren eta ingurumenari dagokionez balio handia duten hedadura zabalak izatea ahalbidetzen diote.

Baiak ibaiaren luzerak eta bere ibar mugatuak zehaztutako esparruaren berezitasunak, egon daitezkeen esku-hartzeetarako, ingurunearen baldintza morfologikoei erantzungo dien ezarpena kontu handiz bilatzea gomendatzen du. Horrez gain, Zati honek inguruko B-3 eta B-4 Zatien arteko elementu antolatzaile gisa jarduteko duen ahalmena baloratu behar da, Haranen eta Lautadaren arteko zeharkako komunikazio-bideak urriak direla ikusita.

Zatirako funtsezko proposamenak Bilbaorako salgaien trenbide-linearen ezkutuko gaitasunean oinarrituta egon behar du, aldi berean beste xede batez erabiltzeko. Ordezko ibilbide bat izango litzateke, mugatua, bere toki nagusiak Igai eta Izarra inguruetan dituen, Murgiara eta Gorbeia Parke Naturalera Haranen Eskualdetik hurbiltzea ahalbidetuko duena.

Oinarritzko ideia horrek egon daitezkeen proposamen desberdinen euskarri izan beharko luke.

B-3 LURRALDE ZATIA

Udalerriak:

Arrazua-Ubarrundia, Iruña Oka, Legutiano, Vitoria-Gasteiz eta Zigoitia.

Izaera:

Berrikuntzaren Arkua barne hartuko duen lurralde-zatia da. Vitoria-Gasteizko hiria barne hartzen du mendebaldetik, eta Langraiz Okatik Legutianoraino eta Elgea mendilerroaren inguruko mendietaraino zabaltzen da.

Tradizioz hiriburutik gertu dagoen ingurunearen espazio transformatuenetako bat biltzen du, lehenik nekazaritzak eta ondoren azpiegituretan eta jardueretan izan diren esku-hartzeek eraginda. Transformazio-prozesu nabarmenak landarediaren ia arrasto guztiak suntsitu ditu, lautaden eta muinoen gainean nahiz erreka eta ibaien ertzetan, Araba Erdialdean ingurumenaren ikuspegitik esku hartzeko premia handienetakoa antzematen zaion zonetako bat izateraino.

Aldi berean, hiri-garapenerako aukera handienak kokatuta dauden zatietako bat da, orain dauden baliabideak ikusita –aireportua, GGZ, industrialdeak, parke teknologikoa–. Hala ere, oraindik oso desegituratuta daude elkarrekiko.

Berezko bi kalitate horiek izango dira esku hartzeko proposamenen edukiak eta helburuak zehaztuko dituztenak.

Zati honetan azpiegituren aurreikuspenek garrantzi handia hartuko dute proposamenaren euskarri diren aldetik. Penintsularen barrualdearekin eta Europarekin dagoen bide-konexio lehiakorak nahiz Jundiz-GGZrako trenbide-lotura premia bat izango dira aireportuaren inguruan jarduera logistiko-produktiboen garapen arrakastatsurako.

Zati honen garapenen ikusmoldeak eremuaren bi ezaugarriak hartu beharko ditu kontuan, aldi berean betetasunez eta hutsunez osatutako espazioa sortzea ahalbidetzeko, hiri-garapenarekin batera ingurunearen ingurumenaren eta paisaia naturalaren kalitatea berreskuratzeko aukera emanez.

Bestalde, Gipuzkoa eta Nafarroarako trenbide-linea garrantzizko baliabidea da garraio publikorako modu berri bat ezartzeari begira, Araba Erdialdeko hiri-sistemaren barruan bigarren mailako hirigune gisa Vitoria-Gasteiz Iruña Oka eta Agurainekin lotuz azken hauek sendotzen laguntzeko.

C-3 LURRALDE ZATIA

Udalerrriak:

Asparrena, Barrundia, Donemiliaga eta Zalduondo.

Izaera:

Elgea eta Urkila mendilerroetako eta Altzaina mendietako hegoaldeko hegialak hartzen ditu, baita Ozaeta haranari lotutako unitate fisikoa ere. Nortasun berezia eta ezaguna duen esparrua da, Lautadaren hondoko oihal bihurtzen dena –Araba Erdialdeko tolesdura nagusietako baten egitura morfologikoarekin bat datorrelako–, eta balio handia du paisaia-erreferentzia gisa, mendilerroen goraguneak osatzen dituzten arroka biluziaren malkarrak ia etengabe beha daitezkeelako. Baso gutxien duten hegialen zati dira, zuhaitziek osatutako landaredi hedadura txikiagoa delako nahiz hezetasunaren aldetik hain eskakizun handikoak ez diren espezieek ordezkatzeko dutelako.

Ñabardura hori alde batera utzita, mendilerroen hegoaldeko isurialde osoa, Araba Erdialdearen barruan naturari eta paisaiari dagokionez eta erreferentzia gisa balio handikoa izanik, balio ezaguna duen lurralde-hutsunea da. Ezaugarri hori Entzia mendilerroaren hegaletara hedatzen da, horraino luzatzen baita zatia Burunda ibarra barneratuz, bertan ixten delarik Lautada ekialderantz etengabe estutzean.

Asentamenduen sistemak, landa-ingurune bati dagokion itxura eta egitura mantenduz, jadanik aldaketa-prozesu bati erantzuten ari zaiola dirudi edo ingurunearen kalitateak erakarritako egoitza-eskariaren hazkunde-prozesuari.

Esku-hartzeak esparru horretako baliabide naturalez gozatzerara orientatuta egon behar dute baita, era berean, Araiako hirigunearen pisu erlatiboa indartzera ere, lurraldean intzidentzia duen hornidura-guneren baten garapena sustatuz.

A-4 LURRALDE ZATIA

Udalerrriak:

Añana, Lantaron, Ribera Alta eta Valdegovia.

Izaera:

Haranen eskualdearen zati handi bat barne hartzen du, hala ere bere mugaketa eskualdeko unitate administratiboa mantentzen saiatu gabe, horren erakusgarri izanik Kuartango Harana B-2 zatian eta hegoaldeko udalerrriak B-8 eta B-9 zatietan baneratu izana.

Bere topografiatik eta lotzen zaion naturatik nabarmen bereizten den zatia da, eta horri nekazaritzako jarduera handia mantentzeko eta ondareari dagokionez balio handia duten elementu antropikoen presentzia gehitu behar zaio.

Neurri batean konplexua den itzuraketa topografikoak asentamendu-sistemen nolabaiteko desegituraketa bultzatzen du, asentamendu horiek dagozkien guneen entitate eskasatik bereizten direlarik.

Egokia litzateke beste Lurralde Zati batzuekin konexioak sendotzea eta barrualdeko hiriguneeen antolamendua bultzatzea, ekipamendu berriak justifikatuko dituen erabilera mistoak agertzea ahalbidetuko duen eta Haranetan populazioaren beharrezko hazkundera gehitzen lagunduko duen pisu erlatibo handiagoa lortu ahal izateko.

B-5 LURRALDE ZATIA

Udalerrriak:

Arrazua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz.

Izaera:

Vitoria-Gasteizko hiria barne hartzen du. Mugaketa horrekin inguruko zatien unitate morfologiko-funtzionala hiriak lurraldeari dagokionez duen izaera bereziarekin eta Eskualde Egituraren lehenengo hirigune izaerarekin bat etortzea lortu nahi da.

Lurraldearen Zatiko Planaren balorazioan oinarrituta, Vitoria-Gasteizen makrozefaliak ez du ezaugarri negatiboa adierazten lurralde osorako. Ez da arazorik ikusten hiriak – udal HAPON aurreikusita dagoen bezala– hazten eta, denboran zehar egiten aritu den hain modu kualifikatuan, hirigune nagusi gisa betetzen ari den zeregina indartzen jarraitzeko. Araba Erdialdean Vitoria-Gasteiz bezalako hiri bat egotea, pisuaren eta erakartzeko gaitasunaren jabe izanik, onuragarria da lurraldearen hiri-sistema orekatuagoa sendotzea ahalbidetuko duen populazioaren gainezkatzeari sortzeko begira hain beharrezkoak diren baliabide horiek erakartzeko.

Zatiak hiri kontsolidatua eta hazkunde berriak barne hartzen ditu, egoitza berrien eskari handiak kontzentratzen direneko lekua ordezkatzuz.

Populazioaren banaketa eta beste Lurralde Zati batzuetatik eskaini ahal izango diren ordezkari eskariak bildutako biztanle berrien erakarpen potentziala ahaztu gabe, errealitateak erakusten duenez Vitoria-Gasteizek duela gutxi lortu ditu hiri ertain bati

dagozkion neurriak eta hazkunde berriei eusteko beharrezko baliabideak ditu, hirian disfuntzionaltasunik sortu beharrik izan gabe.

Etxebizitzak garestiak eta urriak dira eta hirian eragina duten arazoetako bat adierazten dute, lurralde osoaren ikuspegitik irtenbideren bat aurkitu beharko zaion arazoa.

C-5 LURRALDE ZATIA

Udalerrriak:

Alegria-Dulantzi, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Vitoria-Gasteiz.

Izaera:

N-1 autobiak zeharkatzen duen lurraldearen esparrua barne hartzen du, Vitoria-Gasteizko hirigunearen ekialdera, inguruko lurzoruetan autobia honek duen eragina aintzatesten delarik, irisgarritasun handia ematen baitie.

Armiñon – Etxabarri-Ibiña – Deba ibarra / A-8 loturak trafiko astuna eta pasatzen diren fluxuak xurgatzeko aukera emango du.

Hala N-1 autobiak, garapen berrietarako antolamendu-ardatzekin zerikusirik ez duten parametroei erantzuten badie ere –bere izaerarekin bat etorritik–, hazkunde berrien eta orain dauden asentamenduen lurralde-elementu egituratzaile eta antolatzaile gisa jardun ahal izango du, irisgarritasunak ematen duen abantailak bereganatzea ahalbidetuz, inguruko lurzoruetatik bereizten dituen kalitatea izanik.

Funtsezko gaietako bat haxe izango da, une egokian, lotura berriren bat eraikitzeke premia kontuan hartzea edota orain daudenetatik bateren bat birmoldatzeko egokitasuna hiri-eduki handiagoa duten ezaugarrietarantz, bide-sare nagusia osatzen duten elementuekiko elkarguneak kualifikatuz, lagungarria izango baita lurraldean erabilera berriak antolatzeko.

Azpiegiturak eskaintzen dituen ezkutuko aukeren aprobeitxamenduak Vitoria-Gasteizko irteera eta Aguraingo ingurunea sendotzea gomendatzen du, Zatiaren kontrako muturrean hiri-kontrapuntua izanik.

Zatia Gipuzkoa eta Nafarroarako trenbide-lineak zeharkatzen du luzetara, eta hori garrantzizko baliabidea da garraiatzeko modu berri bat ezartzeari begira, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Oka lotuz azken hau Arabar Erdialdeko hiri-sistemaren barruan bigarren mailako hirigune gisa indartzen laguntzeko.

B-6 LURRALDE ZATIA

Udalerrriak:

Alegria-Dulantzi, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Vitoria-Gasteiz.

Izaera:

Lurralde zabala barne hartzen du, Vitoria-Gasteizko Mendialdearen eta Iturrieta mendiaren hegalek –presentzia nabarmena dutenak, ingurumen-balio handia eta baldintza topografikoa nagusituz– eta Lautadaren hegoaldeko inguruko lurzoru uhindunen zerrendak osatutakoa.

Hona hemen bere ezaugarri nagusiak: Lautadako asentamendu-sistemaren ahulezia malden eten-lerro topografikora hurbildu ahala, barruan kokatzen duten mendi-hegalek itxuratutakoa; Mendialdearen zatiarekin artikulagune gisa jarduten duten elementu fokalik ez izatea; eta, hegalek eta zuhaitziek lurrazpiko napak birsortzeko eta ureztatzeko baltsak mantentzeko beharrezko ura jasotzen betetzen duten funtzio berezia.

Nekazaritza da Zati honen iparraldea bereizten duen jarduera.

Lautadako komunikazio-sare trinkoak, orokorrean, konexio ona ahalbidetzen du guneen artean, mendi-oinetik gertuago dauden horiekiko luzetarako loturetarako galtzen dena. Bide-tarte mugatuak lehendik egoteak eta hobekuntzarako arloko aurreikuspenak, horien etengabeko irakurketa proposatzeko aukera ematen du lurralde-egituraren eta eskualde arteko konexioaren ardatz batean aldaraziz.

Orain dauden bide-tarteak Zatiaren muturretan eraikuntza berriko bide-tarteekin lotuz luzetarako etengabeko konexio-elementua lortzen da, bere ibilbidean erakarguneak eta lurraldearen antolamendu-elementuak eratzeko gai izango dena Zatien ipar-hego erlazioetan.

C-6 LURRALDE ZATIA**Udalerrriak:**

Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu eta Harana.

Lurralde-zati honetan Entziako Partzuergoa ere barne hartzen da.

Izaera:

Arabako Mendialdeko eskualdearen zati handi bat barne hartzen du, bere erliebearen ezaugarri topografikoengatik bereizten dena –oso egitura fisiko argiak zehazten dituzte ubideei lotuta dauden eta ibar txikiak eratzen dituzten malda txikiagoekiko– baita bertako landaredi estalkiarengatik ere, Araba Erdialdeko zuhaitz-masa nagusiak adierazten dituztenak. Dohain natural gehienak dituen esparrutzat har daiteke. Baso-masak penintsulako landare sail ugari biltzen ditu.

Oso bereziak diren zuhaitzi hegalek eta Izki Parke Naturalaren muga zabalak ia lurralde osoa hartzen dute (esparruaren heren bat gutxi gorabehera Parke Naturalak barne hartzen du, Entziako Partzuergoa, Zatiaren gainerako esparruaren laurden bat hartzen duena, Natura Sarea 2000 osatzeko proposatu den bitartean). Populazioaren pisu urriak Arabako esparru dinamikoekiko nolabaiteko isolamendua bultzatzen du.

B-3 Zatia dagokion proposamenean oinarrituta dagoen bezala, Berrikuntzaren Arkuan alegia, orain dagoen baliabide nagusiaren inguruan –aireportua–, kasu honetan esku-hartzeak berariazko baliabidea indartzen jardun beharko du, hain zuzen ere espazio “naturalaren” existentzia, aurreko kasuan bezala toki batzuen soilik ez dena.

Horregatik balio positibo horiek indarra galtzen duteneko lekuetan egin beharko dira lurraldea indartzeko proposamen zehatzak. Baliabide berezi bat, esparrua zeharkatzen duen trenbidearen plataforma zaharra alegia, edukiaz hornitu behar da Mendialdeko lurralde osoaren elementu antolatzaile gisa aprobetxatuz, Santikurutze Kanpezu (B-9 Lurralde Zatia) Arraia-Maezturerekin eta, Lautadan, Erentxun eta Vitoria-Gasteizekin lotuz.

B-8 LURRALDE ZATIA

Udalerriak:

Armiñon, Berantevilla, Lantaron, Ribera Alta eta Zambrana.

Izaera:

Bere mugaketak funtsezko bi gairi erantzuten die. Batetik, azpiegiturek hartzen duten pisu izugarria –eta ondoriozko eragina toki mailan– fluxuen bi bideratzaile handiren, hau da, A-1 eta A-68ren gurutzaketa sortzean. Bestetik, egitura fisikoaren eraginak, Ebro ibarra zabaltzean markatutakoak, Miranda de Ebro mugatzen du eremuaren lotura espazialerako.

Hala eta guztiz ere, bi zirkunstantzietatik batek ere ez ditu oraindik bere alderdi positiboak islatzen Zatian. Azpiegituraren indarrak ez du espero den erakargarritasuna eragiten hain esparru irisgarrian eta Mirandarekiko loturak, Arabako lurraldetik oso gutxi aprobetxatzen denak, “muga efektua” dakar ondorioz, nolana ere Burgosko hiriaren onurarako.

Zatian esku hartzeak oinarrizko bi helburutan oinarrituta egon behar du. Batetik, lurralde-banaketarako bideen arku bat berriro antolatzean, lur mailan, fluxuen mugimendua argitzea ahalbidetuko duena, autopistek goragoko mailan dauden bitartean. Bestetik, espazio dibertsifikatuen sorkuntza eragitean –Armiñon eta Erribera Beitiko Udalek ados jarriz bultzatutako ekimenak bilduz tokian produkzio-jarduerak ezartzeko–, beren kokapen estrategikotik probetxua atera ahal izateko eta gertuko ingurunean ezkutuan dauden eskariak erakarri ahal izateko, kanpoko errentak jasotzea ahalbidetuko duten erabilera berezien ezarpena bultzatuz. Hau da, Miranda de Ebroren hurbiltasunari buruz gaur egun antzematen den balorazio negatiboa aldaraztea, bere hurbiltasunak eta bertako populazioaren pisuak Arabako lurraldean sor ditzaketen aukerak garatzearen.

B-9 LURRALDE ZATIA

Udalerriak:

Berantevilla, Bernedo, Kanpezu, Lagran, Peñacerrada-Urizaharra eta Zambrana.

Lurralde-zati honetan Peñacerrada-Urizaharra, Lagran eta Lañoko komunitatea ere barne hartzen da.

Izaera:

Duen egitura fisikoagatik bereizten da batik bat, linealtasun nabarmena hartzen baitu oraingo jarraitutasunean, isurialdeen etenak izan arren, Inglares eta Ega ibarren

artean. Mendialdeko eskualdearen hegoaldeko esparrua baita Haranetako eskualdearen ekialdeko muturra barne hartzen ditu, berez lurraldearen loturarako garrantzizko elementu geografikoa osatuz.

Lurralde Zati honen luzetasun handia inguruko lurraldeekiko lotura bereziek indartzen dute: Condado de Treviño, iparralderantz, administratiboki Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoan integratua; eta Arabako Errioxa, hegoalderantz, Arabako Lurralde Historikoaren zati izan arren, beste Eskualde Egitura batekoa izateaz gain bertatik bereizten dena Toloño/Kantabria mendilerro malkartsuak eraginda.

Egoera berezi horren ondorioz, Zatiak batik bat bere muturretatik ditu ezarrita harremanak Araba Erdialdearen gainerako esparruekin.

Zatiak esparru etena du, Nafarroarekiko muga administratiboa Arabako lurraldean sartzen den neurrian, Ega ibarraren tarte bat bereganatuz. Zatiaren bi esparruen arteko bideen lotura nagusiak, A-126ak alegia, Nafarroa zeharkatzen du baita ere ibaiaren ibilguari jarraituz.

C-6 Zatian bezala, zuhaitz-masaren kalitatea eta aniztasuna, erliebearen ezaugarrietara egokitua, esparru honetako baliabide interesgarrienetako bat da, eta beraz funtsezko zeregina betetzen du lurralde osoan.

Esku-hartzeek hiru helburu lortzera bideratuta egon behar dute: Santikurutze Kanpezuko hirigunea pisu erlatibo handiagoaz sendotzea; Zatiaren ondare-balio bereziak indartzea; eta produkzioari dagokionez balio handikoak diren lurzoruetan esku-hartze aktiboa bultzatzea.

3. plano Lurraldearen gobernua: PROZESUAK

Araba Erdialdeko lurraldea bere osotasunean eragiten duten lau prozesuak espazioan ezartzen ditu.

LURRALDE TRANSFORMAZIOA

Aukerako lurzoruak barne hartzen ditu, lurraldearen gainerako esparruetan sinergia positiboak sortzeko gai izango diren hiri-transformaziorako jarduerak jasotzeko.

Ez dira urbanizazio edo eraikuntza etengabearen eraginpean dauden lurzorutzat hartu behar. Eremu horiek ez dituzte lurzoru sailkatuak ezta kalifikatuak ere ordezkatzeko, Lurraldearen Zatik Planak ez duen eskumena izanik. **Aukerako kokalekuak dira**, esku-hartzearen handitasunaren, ezartzen den erabileraren eta bertako jarduerak espazioan antolatzen diren moduaren arabera, lurzoruaren azalera handiagoa edo txikiagoa hartu ahal izango dutenak, horrez gain lurzoru beteak eta hutsak barne hartuz.

LURRALDE BABESA

Ingurumenari dagokionez balio handiko esparruak barne hartzen ditu, denborak aurrera egin ahal iraunarazi beharrekoak. Urbanizazio-prozesu posibleak jasotzetik salbuetsita, lurraldearen eboluzioan dagozkien giltzarrietan oinarrituta laguntzeko erronka hartu behar duten beren gain.

Beren baldintza topografikoek eta naturalek, basogintzako edo nekazaritzako balioak zehaztutako esparruak barne hartzen dituzte. Lurraldea babesteko asmoak baliabideak zaintzeko esku hartzea eskatzen du nahitaez, produkzioari nahiz ingurumenari dagozkien balioak badira ere edota biztanleek haietatik gozatzeko aukera.

LURRALDE BIRKUALIFIKAZIOA

“Lurralde-babesaren” mende dauden horien kalitate berberak dituzten esparruetan aplikatzen da, **eta horietarako lehentasunezko ekintzak aurreikusi dira**, beren izaeraren birkualifikaziora eta kontsolidaziora bideratutakoak.

Lurraldearen ikuspegitik beren gain hartzen duten kokapen estrategikoaren arabera aplikatzen da, berez edo “Lurraldea transformatzeko” prozesuaren mende dauden beste lurzoru batzuetara lotzeko, hain zuzen ere lurzoru horiekin osatu ahal izateko edo horietatik onura ateratzeko, eragin posibleek sorrarazitako konpentsaziozko ekintzetatik ondorioztatzen diren neurrian.

BALIABIDEEN ERRESERBA

Aurretik aipatu diren prozesuetako batean ere barne hartzen ez diren esparruak biltzen ditu. “Lurraldearen erreserba” osatzen dute zentzurik zabalenean, potentzialki eraikigarriak diren lurzoruak baita ingurumenari dagokionez balioa duten espazioak

bilduz, aintzatetsitako egituratik kanpo badaude ere. Lurraldearen Zatikoko Planean aurreikusi ez diren udal ekimen guztiak kokatzeko erabil daitekeen "jokorako taula" izango da.

Lurraldearen gobernua ERREGULAZIO OROKORRA

Sei gai nagusitan oinarrituta antolatzen da:

INGURUMENAREN ERREGULAZIOA

Araba Erdialdeko ingurumenean eragina duten gai nagusiak barne hartzen ditu, arloko politika zehatzen aztergai izanik ere, kontua hartu beharrekoak Arabako lurraldearen bereizgarri den ingurumenaren balioa eta kalitatea zaintzeko nahiz bere eraginkortasun funtzionala ziurtatzeko.

- RA-1 Biodibertsitatea**
- RA-2 Ubideak eta ur-bazterrak**
- RA-3 Basoak**
- RA-4 Nekazaritza eta Abeltzaintza**
- RA-5 Inguru hezeak**
- RA-6 Parke Naturalak eta Gune Babestuak**
- RA-7 Paisaia**
- RA-8 Akuiferoen urrakortasuna**
- RA-9 Uholdeen arriskua**
- RA-10 Higaduraren arriskua**
- RA-11 Lurzoruaren kalitatea**
- RA-12 Lurzoruko eta zorupeko baliabide mineralak**
- RA-13 Energiak**

HORNIKUNTZEN ERREGULAZIOA

Era berean arloko politiken aztergai izanik, funtzionamendu sozial egokirako ekipamenduak izateak eta lurraldearen funtzionamendu egokirako horien posizio erlatiboak duten garrantziak gai marko batzuk kontuan hartzea eragiten du.

- RD-1 Tokioa ez den ekipamendura heltzeko garraio publikoa**
- RD-2 Tokiko ekipamendu-premiak betetzea**

MUGIKORTASUNAREN ERREGULAZIOA

Garraio-azpiegiturak antolatzen eta kudeatzen laguntzera eta garraibideen dibertsifikazioa eta osagarritasuna bultzatzera zuzendutako gaiak aztertzen ditu.

RM-1 Mugikortasunaren kudeaketa eta garraio-sistema

HAZKUNDE BERRIEN ERREGULAZIOA

Garapen berriek lurraldean duten ezarpena eta Araba Erdialdeko lurraldean finkatu beharreko hiri-sistemaren hierarkia aztertzen ditu.

RNC-1 Ingurumenaren kalitatea

RNC-2 Bide-elementuen tratamendua

RNC-3 Garraioen azpiegiturekiko konexioa

RNC-4 Zerbitzuen azpiegiturekiko konexioa

RNC-5 Egoitza-kuantifikazioa

RNC-6 Hazkunde-moduak

RNC-7 Ekipamenduak

ERABILEREN ANTOLAMENDU ESPAZIALAREN ERREGULAZIOA

Garapen berrien antolamendu espaziala eta hiri-espazio kontsolidatuak eredu kulturalen eboluzioak zehaztutako eskakizun berrietara egokitzea da asmoa (eraikitako eremuetan espazio libreen portzentaje handiagoa barneratzea; erabilera desberdinak batera izatea; mugikortasunari lotutako eskakizunetan arreta jartzea; eguneroko bizitzan eragin handia izango duten zerbitzuak eta hornikuntzak izatea; integrazio espazialaren eta ingurumenaren kalitatearen elementu gisa urbanizazioa eta paisaiaren tratamendua zaintzea eta abar).

ROEU-1 Egoitza-espazio berria

ROEU-2 Egoitza-espazio kontsolidatua

ROEU-3 Jarduera ekonomikorako espazio berria

ROEU-4 Orain dagoen espazio industrialia

ROEU-5 Urbanizazio-aukerak

UDAL EKINTZAREN ERREGULAZIOA

Lurraldearen Zatiko Planarekiko arloko determinazioen osagarritasuna argitzera zuzendua.

RAM-1 HIRIGINTZAKO ESKUMENA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK Lurraldearen Arloko Planei dagokienez

RAM-2 HIRIGINTZAKO ESKUMENA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK Udal-ekintzaren beste zenbait baldintzatzaileri dagokienez

Erregulazio Orokorra Lurraldearen Zatiko Plan honetako **2. liburukian, ARAUDIAN** garatzen da.

II.3.

ESKU HARTZEKO MODUAK

**EKINTZA EGITURATZAILEAK
ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK**

Oinarrizko bi tresna bereizten dira Lurraldearen Zatiko Planak aurreikusitako esku-hartzeen mota eta edukia definitzearen: Ekintza Egituratzailerak eta Eragiketa Estrategikoak.

Horietako bakoitzari dagozkion determinazioak bereizitako Fitxetan biltzen dira.

EKINTZA EGITURATZAILEAK

Azpiegituretan edo ingurumenean izango diren esku-hartzeak dira. Helburua hau da, Lurralde Egituraren “euskarria” osatzen duten elementuen sarea –oro har, komunikazio azpiegiturek– aztertzea. 1. planoan deskribatutako “sareen” kontzeptuan barne hartzen dira, hain zuzen ere Egitura hori barne hartuta geratzen den horretan.

Ekintza Egituratzaileraren determinazioa bi premisa kontzeptualetan oinarrituta egiten da: Lurralde Zati bakoitzaren izaera edo nortasun ikurrak –kasu bakoitzean proposatutako ekintzei erantzuten saiatzen direnak– eta lurraldearen baterako irakurketa, irizpide unitarioen bidez planteatzea ahalbidetzen duena, beren osagarritasuna lortzea ahaleginduz, bat etortzeko asmoarekin.

Lurraldearen Zatiko Planetik proposatzen dira lurralde osoaren ikuspegitik antzemandako premia bati erantzunez baina, dagozkien ezaugarriek eraginda, arloko Planetan eta Programetan barne hartzera baldintzatuta geratzen dira beren burutzapenerako. Lurralde-antolamenduaren eskumen generikotik arloko esku-hartzeak (eta ondoriozko inbertsioak) aurretik zehazteak adierazten duen zailtasunaren aurrean, **“ekintza egituratzaile” horiek beren garapenean eskumenak dituzten arloko administrazioentzako gomendio gisa bakarrik har daitezke.**

ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK

Lurraldearen Zatiko Plana hornitzen deneko tresna adierazten dute **dagokion eskumen-eremuan barne hartzen diren esku-hartze zehatzetarako:** Lurraldea transformatzeko prozesuaren eraginpean dauden lurzoruak.

Izenak dagokien izaeran du bere jatorria: esku-hartze **estrategikotzat** hartzen dira, “aukerako eremuetan” kokatzen direlako, erabilera berriak ezarri edo daudenak bultzatzeko –funtsezko faktorea lurraldearen errealitate ekonomiko-funtzionala indartzeko eta bertako lehiakortasuna mantentzeko–, nahiz gainerako esparruan sinergia positiboak sortzeko –berariazko leku batzuetan bakarrik sortzeko joera duten errentetan partaidetza orokorragoa ahalbidetuz–.

Eragiketa horien bidez Araba Erdialdeko ekonomia dibertsifikatu berria, produktiboa eta zerbitzuei lotutakoa barne hartzera bideratutako espazio emblematico-funtzionalak eraiki nahi dira; baita egoitzako espazio berriak ere, horien bidez etxebizitzaren eskaintza anizteko; edo lurraldean mugarri izan nahi duten hornidura-multzo berriak.

Eragiketa Estrategikoak barne hartuta dauden Lurralde Zatiaren berezko nortasuna sendotzera bideratuta daude, esku-hartzea bertako baliabide bereizgarrietan oinarrituz. Kasu batzuetan, aurretik dauden piezak jardueraren hazia izan daitezke. Esku hartzeko proposamenean barneratzeak beren balioa mantentzeko eta eguneratzeko aukera ematen die. Berrikuntzaren Arkuko Jundizko industrialdearen-GGZren kasua da, adibide bat aipatzearren.

Eragiketa Estrategiko bakoitzaren mugaketa zehatza ez da Lurraldearen Zatiko Planetik itxi nahi. Eragiketa horiek burutu aurretik mugatuko dira fisikoki, horiek burutzeko adostasuna lortu ondoren dagozkien edukiak egokitzea, alderdi zehatzei buruzko erabakiak hartzea eta garatuko dituen proiektua burutzea beharrezkoa eta ezinbestekoa denean.

Eragiketa Estrategikoen bitartez lurralde-antolamendua transmititu nahi da, eta horretarako askoz ere interesgarriagoak dira lurralde-egituren sistemekiko erabileren posizio erlatiboa eta ezarpen-mota, antolamenduaren berezitasunak eta horien definizio zehatza eta erabatekoa baino.

Eragiketa Estrategikoak, funtsean, **jarduera integratuak** dira, eta horietarako Planak antolamendurako irizpideak zehazten ditu –barne-egitura eta erabilera nagusiak–, eremuak lurraldean duen kokapenak eta esku-hartzea instrumentalizatzen dituen helburuek ezarritako baldintzen emaitza gisa.

Eragiketa Estrategiko horiek, lurralde osorako gutxi izanik, udal mailatik harantz doaz beren berezitasunagatik eta eskalagatik. Hasiera batean, guztiek sustapen eta kudeaketarako ad-hoc entitateak eratzea eskatuko dute, publikoak eta, hala badagokio, maila administratibo desberdinen partaidetzarekin, nahiz publiko-pribatuak edo pribatuak, aurretik itundutakoak.

4. planoak

Esku hartzeko moduak

EKINTZA EGITURATZAILEAK ETA ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK

Plano honek Lurraldearen Zatiko Planak zehaztutako esku-hartzeen irudia osatzen du.

EKINTZA EGITURATZAILEAK

Hiru mota bereizten dira:

Bideetakoak: eskualde eta nazioarteko sarearen konexiorako funtsezko elementu gisa jasotzeko Etxabarri-Ibiña eta Armiñon arteko lotura.

Trenbideetakoak: errailen gaineko sistema arin baten ezarpena aurreikusteko, lurraldean orain dauden garraibide publikoen osagarria izango dena, Agurain, Vitoria-Gasteiz eta Iruña Oka artean garatzeko, edo Forondako aireportuan.

Paisaia eta ingurumenekoak: bestelako izaera duten "ibilbide tematiko" gisa lurraldeko konexio jakin batzuk bereizten direnekoak.

Beren proposamenaren helburu nagusia hau da, lurraldean mugikortasun ekologikoa antolatzea, landa-turismoaren planteamendu nagusiekin bat etorriko dena, horrek lurraldearen esparru desberdinei dagozkien nortasun-ikur bereizgarriak aintzatesten lagunduko duelakoan.

Ia ibilbide gehienek orain dauden azpiegiturak aprobetxatzen dituzte. Ingurumenari eta paisaiari dagokionez eta ikuspegi antropologikotik begiratuta, guztiek dute behar adina aniztasun osagai kulturalak kirol osagaiarekin edo besterik gabe aisiakoarekin bat egiten dueneko ibilbideak prestatzeko.

Naturako aisia-jardueren garapenean oinarritutako turismoa bultzatu nahi dute, aldi berean, truke, errespetu eta ikaskuntzarako espazio gisa erabiliz.

BIDEETAKOAK

AE-1 Etxabarri-Ibiña / Armiñon.

TRENBIDEETAKOAK

AE-2 Garraio arinaren sarea.

PAISAIA ETA INGURUMENENKOAK

AE-3 Trenbidearen ibilbidea Baia ibaian zehar.

AE-4 Ullibarri - Araia arteko aisia-ibilbidea.

AE-5 Zadorrako nekazaritza-ibilbidea.

AE-6 Ingurunearen aprobetxamendurako ibilbidea.

AE-7 Arabako hegoaldeko eskualde arteko ibilbidea.

AE-8 Ipar-mendebaldeko ordezeko ibilbidea.

AE-9 Santiago bidea.

Ekintza Egituratzailen erregulazioa Lurraldearen Zatiko Plan honetako **2. liburukian, ARAUDIAN** garatzen da bereizitako Fitxen bidez.

ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK

Eragiketa horiei dagokienez, plano honek "giltzarri" plano gisa dihardu. **Eragiketa horietako bakoitzaren kokapena eta identifikazioa adierazten du.** Eragiketek lurraldean duten kokapenak ez dakar berekin jarduera-eremuaren mugaketa zehatzik, nolana ere, jarduera-eremu horiek beren burutzapenean inplikaturik dauden agenteekin ados jarriz definitu beharko baitira dagokion garapen-proiektuaren bitartez.

- OE-1** Subijana-Morillas / Pobes lurralde-espazioa.
- OE-2** Iparraldeko Berrikuntzaren Arkua:
Logistika, produkzio eta aireportuaren multzoa.
- OE-3** Hegoaldeko Berrikuntzaren Arkua:
Arabako atea - Jundiz.
- OE-4** Araiako hirigunea finkatzea.
- OE-5** Gesaltza-Bergonda-Espejoko lurraldearen artikulagunea.
- OE-6** Aguraingo lurraldea finkatzea.
- OE-7** Eguietako lurraldearen artikulagunea.
- OE-8** Izkiko ingurumenaren interpretazio zentroa.
- OE-9** Hegoaldeko Arkuko jarduera ekonomikoak.
- OE-10** Peñacerrada-Urizaharreko hornikuntzarako lurralde-espazio berria.
- OE-11** Santikurutze Kanpezuko garapen berriak.

Eragiketa Estrategikoen erregulazioa Lurraldearen Zatiko Plan honetako 2. liburukian, ARAUDIAN garatzen da bereizitako Fitxen bidez.

II.4.

UDALERRIEI ZUZENDUTAKO DETERMINAZIOAK

(4/90 LEGE AGINDUA ETA
LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO
ARTEZPIDEAK)

EGOITZA KUANTIFIKAZIOA

ETXEBIZITZA BABESTUA

BIGARREN EGOITZAKO ETXEBIZITZA

**SUSTAPEN PUBLIKOKO LURZORU
INDUSTRIALAREN KUANTIFIKAZIOA**

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/90 Legeak –12, f) artikuluan– Lurraldearen Zatiko Planek ondoren adierazten diren xede hauetarako erreserbatu behar diren lurzoruen kuantifikazioa zehaztu beharko dutela ebazten dute:

- Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza, sustapen publiko nahiz pribatukoak.
- Lurzoru industrialaren sustapen publikoa, poligono urbanizatuak eratzea ahalbidetzarren.

Legearen 12.1.g) artikulua determinazioek udal-planetan eta plan horietarako gehienezko hazkundea etxebizitza-kopuru gisa eta horren ondoriozko lurzoru moduan kuantifikatzeko agindua ematen dute.

Beren aldetik Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, 10. kapituluaren, “Bigarren Egoitzaren eta Turismo Baliabideen Antolamendua”, 5.10. itemeari, hauxe ebazten dute:

- “Udal plangintzan bildu beharko diren bigarren egoitzarako lurzoruaren eskaintzari dagozkion gehienezko mugak Lurraldearen Zatiko Planak finkatuko ditu”.

Bi aginduak betez, Lurraldearen Zatiko Planak honako determinazio hauek egin ditu:

EGOITZA KUANTIFIKAZIOA

Udalek egoitza-lurzoru gisa sailkatu behar den lurzoruaren hedadura kalkulatu dute, Erregulazio Orokorraren “RNC-5. Egoitza Kuantifikazioa” Hazkunde Berrien Erregulazioan zehaztutako formula aplikatuz.

Lurraldearen Zatiko Planak udal-plangintzan aurreikusi beharreko egoitza-ahalmenaren balio-urkila ezartzen du. Gehienezko balioa lurzoruaren gainkalifikazioaren ondorioz hirigintzako garapen desordenatuak ez sortzearren ezartzen da, eta gutxieneko balioa lurzoru kalifikatu gutxiegi izatea saihestearren.

Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldia luzea denez (16 urte), gehienezko balioaren eta gutxieneko balioaren artean dagoen tartea edo urkila plangintzaren berrikuspena idazten den unean udalerriri buruz dauden datu estatistikoaren arabera aplikatuko da.

Gehienezko balioa eta gutxieneko balioa Artezpideen irizpideetan oinarrituta lortuko dira, Lurraldearen Zatiko Planak egokituta, honako osagai hauen baturaren arabera:

- C1 osagaia, ereduaren arabera Lurraldearen Zatiko Planak definitu beharrekoa. "RNC-5. Egoitza Kuantifikazioa" Hazkunde Berrien Erregulazioan adierazten diren hazkundeak udalerrri bereizi gisa hartzen dira, eta ezartzen den entitatean.

Plangintzaren berrikuspen-prozesuan eta aipatutako balioak Lurraldearen Zatiko Planaren indarraldirako (16 urte) planteatzen direnez, kopuruaren %75 bakarrik erabiliko da.

- Osagaiak: C2 (hazkunde demografikoa), C3 (famili egituraren bariazioa), C4 (eskaintzaren zurruntasunaren zuzenketa) eta C5 (bigarren egoitza): Artezpideen kalkuluen arabera.

- **CR** zurruntasun-koefizientea:

Gehienezko balioa: Artezpideen CR.

Gutxieneko balioa: Artezpideen CR balioaren erdia.

- **CSR** bigarren egoitzako koefizientea:

CSR = 0 Lurraldearen Zatiko Planak eredu-arrazoien ondorioz C1 osagaiari dagokion atalean bereizten dituen udalerrietan.

Gainerako udalerrriak: Artezpideen CSR.

Hurrengo orrian ikus daiteke kalkulu-sistematikaren emaitzazko taula, udalerrri bakoitzerako egoitza-kuantifikazio xehatua jasotzen duena.

ERANSKINA: EGOITZA LURZORUAREN ESKAINTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEEN ARABERA KUANTIFIKATZEKO KALKULU ORRIA

ARABA ERDIALDEKO ESKUALDE EGITURAKO DATUEN LABURPENA

UDALERRIA	1	2	3	4		5	6	LAAen arabera egoitza-kuantifikazioa			
	1. osagaia LURR. ERED. INPLIK.	2. osagaia HAZKUNDE DEMO.	3. osagaia FAMIL. EGIT. ALDAK.	4. osagaia ZURRUNT. KOEF.		5. osagaia BIG. EGOITZA		8 urterako beharren ar.		16 urterako beharren ar.	
				Z.K. prop.	4. osag.			GEH. Etx.kp.	GUTX. Etx.kp.	GEH. Etx.kp.	GUTX. Etx.kp.
ALEGRIA-DULANZI	450	152	65	0,35	270	0	937	577	1.246	767	
ARMIÑON	0	2	7	0,35	23	16	48	32	64	43	
ARRAIA-MAEZTU	0	0	35	0,35	108	72	215	134	286	178	
ARRAZUA-UBARRUNDIA	450	26	25	0,35	100	0	601	326	799	434	
ASPARRENA	225	6	85	0,35	252	0	568	217	755	289	
BARRUNDIA	0	6	25	0,35	87	118	236	150	314	200	
BERANTEVILLA	0	5	13	0,35	53	36	107	68	142	90	
BERNEDO	0	0	24	0,35	77	51	152	93	202	124	
KANPEZU	225	0	49	0,35	155	0	429	127	571	169	
KUARTANGO	0	8	18	0,35	59	128	213	140	283	186	
BURGELU	0	82	17	0,35	86	93	278	213	370	283	
HARANA	0	0	12	0,35	43	0	55	34	73	45	
IRUÑA OKA	2.250	93	80	0,35	300	0	2.723	698	3.622	928	
IRURAZ-GAUNA	0	0	13	0,35	49	0	62	38	82	51	
LAGRAN	0	0	11	0,35	32	22	65	41	86	55	
LANTARON	0	23	39	0,35	139	0	201	131	267	174	
LEGUTIANO	225	10	55	0,35	189	0	479	160	637	213	
OTXANDIO	225	0	40	0,35	137	0	402	108	535	144	
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	225	1	14	0,35	41	0	281	35	374	47	
RIBERA ALTA	225	0	24	0,35	77	0	326	63	434	84	
ERRIBERA BEITIA	450	99	29	0,35	133	0	711	420	946	559	
AÑANA	0	0	9	0,35	28	56	93	58	124	77	
AGURAIN	2.250	88	161	0,25	410	0	2.909	829	3.869	1.103	
DONEMILIAGA	0	0	21	0,35	82	52	155	93	206	124	
UBIDE	0	1	10	0,35	27	19	57	38	76	51	
URKABUSTAIZ	225	0	46	0,35	138	0	409	115	544	153	
VALDEGOVIA	225	14	56	0,35	163	0	458	152	609	202	
VITORIA-GASTEIZ	15.000	3.938	9.137	0,12	10.816	0	38.891	18.483	51.725	24.582	
ZALDUONDO	0	4	8	0,35	24	9	45	30	60	40	
ZAMBRANA	0	3	18	0,35	55	0	76	49	101	65	
ZIGOITIA	225	196	61	0,35	263	0	745	388	991	516	
ZUIA	225	178	71	0,35	314	0	788	406	1.048	540	
EE GUZTIRA	23.100	4.935	10.278	0,33	14.730	672	53.715	24.446	71.441	32.516	

7-8 zutabeak: 8 URTERAKO aurreikusitako GEHIENEZKO eta GUTXIENKO beharrak.

9-10 zutabeak: 16 URTERAKO aurreikusitako GEHIENEZKO eta GUTXIENKO beharrak. 8 urterako kuantifikazioa 1,33ko koefizientearekin biderkatuz lortua (8 urterako "3" eta 16 urterako "2" astintasunaren arteko erlazioa)

11/14 zutabeak: Urtean eraiki beharreko etxebizitzak (1000 biztanleko), egindako egoitza-kuantifikazioaren proposamenen emaitzen arabera.

22 zutabea: Urtean eraikitako etxebizitzak (1000 biztanleko), 1986/1996 hamarraldian (EUSTATen datuen arabera)

ETXEBIZITZA BABESTUA

4/1990 Legearen agindua ekainaren 30eko 17/1994 Legeak gainditu du, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren arloko presako neurriak eta hirigintza plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazteari buruzkoak. Bertan portzentaje horiek ex-legem ezarri dira izaera orokorrez, edozein Planen determinazioen gainetik.

Beraz, Legea aplikatu beharko da.

BIGARREN EGOITZAKO ETXEBIZITZA

Erregulazio Orokorrean, hain zuzen ere, RNC-5 Hazkunde Berrien Erregulazioa “Egoitza Kuantifikazioan” ezarritako formula aplikatzearen emaitzako etxebizitzaren zenbatespenek etxebizitza berrien multzoari erantzuten diote, iraunkorrak nahiz bigarren etxebizitzak badira ere.

Horren ondorioz, udalerriek hasiera batean bi etxebizitza-modalitateen artean “dagokien” guztizko kopurua banatu beharko dute, Lurraldearen Zatiko Planetik Eragiketa Estrategikoetarako egindako determinazioak edo gomendioak kontuan izanik eta barne hartuta gera daitekeen Lurralde Zati-tako bakoitzerako aurretik zehaztutako nortasuna errespetatuz.

Proporzioei dagokienez, bigarren egoitzaren kopurua egoitza iraunkorraren arabera mugatu nahi izanik ere, ezingo litzateke izaera orokorrez horrelakorik egin. Udallerri ugari beren garapena eta aberastasuna aldizkako erabilerako edota erabilera turistikoko etxebizitzaren “desproporzioan” oinarritzen dituzte. Hori Udalek Araba Erdialdean etorkizunean izango duten kokapen estrategikoan izan dezaketen aukeraren arabera kontuan hartu behar da.

Beraz, lege aginduari erantzunez, **bigarren egoitzaren portzentajea modu ireki batean finkatzen da araudi bidez**, udal irizpidearen arabera, adierazitako Erregulazio Orokorrean oinarrituta onartu diren etxebizitza berri guztien proportzio aldakorra izan dezakeelako aukera gaituz. **Udalek beren erabakia argumentu bidez adierazi beharko dute oraingo joera kontuan izanik eta Udallerriak lurraldean bete nahi duen zereginaren arabera, eta betiere Lurraldearen Zatiko Planetik aditzera emandako asmoekin bat etorritik.**

SUSTAPEN PUBLIKOKO LURZORU INDUSTRIALAREN KUANTIFIKAZIOA

Gaur egun 4/90 Legearen exijentzia murriztailea da nolabait, jarduera ekonomikoen garapena bultzatu behar duena inbertsio publikoa dela uste delako eta jarduera horiek erabilera industrialerako bakarrik asimilatu behar direlako. Adierazpena mugatzailea da jarduera ekonomiko dibertsifikatura – industria eta zerbitzuak nahastean eguneratua– irekita dauden lurzoruetarako eta, are gehiago, batzuetan jarduera jakin batzuk sektore bati zein besteari esleitzeak adierazten duen zailtasunari dagokionez, barneratutako osagai tertziarioak hartzen duen pisuaren arabera.

Hala eta guztiz ere, Planak Legearen agindua betetzen du. Lurraldearen Zatiko Planean proposatutako Eragiketa Estrategiko integratuek, neurri handi batean, Araba Erdialdeko produkzio-egitura berriaren euskarria eraikitza zuzendutako aukerako lurzoruen hautaketa estrategikoa eta lehentasunezkoa osatzen dute.

Hona hemen asmo horrekin zehaztu diren Eragiketa Estrategikoak:

- OE-2 Iparraldeko Berrikuntzaren Arkua. Logistika, produkzio eta aireportuaren multzoa.
- OE-3 Hegoaldeko Berrikuntzaren Arkua. Arabako atea - Jundiz.
- OE-6 Aguraingo lurraldea finkatzea.
- OE-9 Hegoaldeko Arkuko jarduera ekonomikoak.

eta 1.334 ha lurzoru kontabilizatzen dute, Araba Erdialdeko jarduera ekonomikoa garatzeko proposatutakoa.

Horiek guztiak “sustapen publikoaren” kontzeptu tradizionalan asimilatu ahal izango lirateke, burutu ahal izateko instituzio publikoen erabakia eta laguntza eskatuko duten neurrian. Hala eta guztiz ere, eta guztiek laguntza publiko hori beharko badute ere, finantzaketak baita kudeaketak ere itundutako modalitate publiko-pribatu berriei erantzutea proposatu eta lortu nahi da. Zentzu horretan, eragiketa horiek ezin zaizkio eta ez zaizkio inbertsio publikoari esleituko, industrialdeetan jarraitu ohi zaion ildotik.

Lurraldearen Zatiko Plan honek lurraldearen esparrua definitu ondoren, jardueretako bakoitzean burutuko den jarduera publikoaren definizio zehatza izapidetzen ari den Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruaren eta Ekipamendu Komertzialen Sorkuntza Publikorako Lurraldearen Arloko Planean adieraziko da xehetasunez.

OE-2 Eragiketa Estrategikoa
IPARRALDEKO BERRIKUNTZAREN ARKUA.
LOGISTIKA, PRODUKZIO ETA AIREPORTUAREN MULTZOA.

Azalera guztira: 697 ha.

(Vitoria-Gasteizko Parke Teknologikoaren zabalkuntzarako lurzoru urbanizagarriak barne hartzen ditu.)

OE-3 Eragiketa Estrategikoa
HEGOALDEKO BERRIKUNTZAREN ARKUA.
ARABAKO ATEA - JUNDIZ.

Azalera guztira: 126 ha.

(Jundizko industrialdearen zabalkuntzarako lurzoruak barne hartzen ditu.)

OE-6 Eragiketa Estrategikoa
AGURAINGO LURRALDEA FINKATZEA.

Azalera guztira: 194 ha.

(Donemiliaga-Asparrenako jarduera ekonomikorako lurzoruen Erreserba Estrategikoa barne hartzen du.)

OE-9 Eragiketa Estrategikoa
HEGOALDEKO ARKUKO JARDUERA EKONOMIKOAK.

Azalera guztira: 317 ha.

(Lantarongo jarduera ekonomikorako lurzoruen Erreserba Estrategikoa barne hartzen du.)

II.5.

LURRALDEAREN ZATIKO PLANAK UDALERRIEI ZUZENDUTAKO DETERMINAZIOAK ETA IRADOKIZUNAK

ERAGINEN DOKUMENTUA

Lurraldearen Zatiko Planak Udalen ekintza bultzatzen du, batik bat egiteko gai diren lehia guztiarekin lurraldearen dinamizazio eta integraziorako estrategian parte hartu nahi duten horiena, dagokion politikan eta jardueretan estrategia horri erantzunez.

Lurraldearen Zatiko Planak esku hartzeko proposamenak formulatzen ditu, gutxi batzuk eta estrategikoki aukeratutakoak izanik.

Lurraldearen Zatiko Plana onartu ondoren, proposatutako esku-hartzeak zehazki bultzatzea litzateke asmoa, esku-hartze horiek -eta horregatik aukeratu dira- gaitasunez hornituta dauden eta beren efektu hedatzailean aukerak eskaintzen dituzten neurrian, nahitaez beste edozein esku-hartzetan egon beharrik ez dutenak.

Hala ere, Planaren asmoa ez da udal ekimena horretara mugatzea, beste esku-hartze batzuk bilatzera animatzea baizik eta, esku-hartze horiek bultzatzeko Udalei hiri antolamendurako beren udal plangintzan lurralde hedadura izango duen gogoeta gehitzea exijitzen die.

Arrazoi horregatik, Planaren onarpenak udalentsako honako eskakizun hauek dakartza berekin:

- Dagozkien Planetan, udalerrri bakoitzak, Lurraldearen Zatiko Planak planteatutako lurralde-estrategian oinarrituta, bere eremuan estrategia hori aplikatu nahi duen modua kontuan hartu eta bere Memorian zehaztea.
- Aldizka, eta Lurraldearen Zatiko Planaren proposamena egokitzen ez badu, bereganatu nahi duen hiri-politika berariaz justifikatzea, baita proposatzen dituen aukerak ere, nahitaez integratuta egon behar duen lurralde-testuinguruan.
- Bere udalerrian kokatzen diren Ekintza Egituratzailen eta Eragiketa Estrategikoen existentziatik abiatzea, bere hiri-plangintzan bilduz.
- Ekintza eta Eragiketa horiek beretzat izan ditzakeen ondorio potentzialak kontuan hartu eta aztertzea, hala badagokio bere plangintzan ekimenak eta proposamenak justifikatzeko aukera izanik, ekintza eta eragiketa horiek sor ditzaketen aukerak aprobetxatzeari begira. Kontrako kasuan, aukera horiek sortzen ez direla uste bada, era berean Udal Planaren Memorian zehaztu beharko litzateke.
- Era berean, Araba Erdialdeko lurralde integratuaren barruan, udalerrriak bete nahi duen zeregina edo apustua zehaztasunez adieraztea, jarrera estrategiko horrek Udalaren proposamenen oinarria osatuz, ikuspegi kualitatibotik nahiz kuantitatibotik.
- Lurraldeari buruzko beharrezko gogoeta horretan, muga-baldintza potentzialak kontuan hartzea. Lurraldearen Zatiko Plana onartzen denetik, Eskualde Egituraren barruan ezingo da Udal baten aldetik ere Plan Orokor bat aurkeztu, ezta Arau Subsidiariorik ere, informazio eta kontraste gisa

inguruko udalerrietan indarrean dagoen plangintza kontuan hartzen ez duenik. Begien bistakoa da Udal batek ez duela eskumenik beste udalerririk batzuetan. Izan ere, bere antolamendu-proposamenen eta inguruko udalerrietan jadanik onartutakoen arteko bateragarritasuna egiaztatzen behartzen zaio, edo antzeman ahal izan den diskordantzia Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien aurrean edo Eusko Jaurlaritzaren aurrean adieraztera.

UDALERRIEI ZUZENDUTAKO DETERMINAZIOAK ETA IRADOKIZUNAK. ERAGINEN DOKUMENTUA.

Lurraldearen Zatiko Plana lurraldearen hurbilketan eta irakurketan oinarrituta landu da, lurraldea bere osotasunean hartuta. Hurbilketa horrek Eskualde Egituraren lurraldea Lurralde Zatieta banatzea eragin du –udal mugaketa administratiboan eta lurraldearen funtzionamenduaren arteko elkarrekikotasunik eza gaituz– baita lurralde osoaren aldi bereko irakurketatik eta unitate morfologiko-funtzional berri horietatik Ekintza Egituratzaileran eta Eragiketa Estrategikoetan xehatutako esku-hartzeak aurreikustea ere.

Orain Lurraldearen Zatiko Planak Udal bakoitzari egiten dizkion eskaintzen eta ematen dizkion aukeren irakurketa sintetikoa egin behar da, sintetikoa izan arren globalizatzailerak izan behar duena.

Horretarako, informazioa bost ataletan antolatu da:

- i. Hartzen dituen zatiak.
- ii. Hiri-sistemako hierarkia.
- iii. Eragiketa Estrategikoak, udalerrian mugatutakoak, Udalarentzako **determinazio lotesleak** diren aldetik.
- iv. Ekintza Egituratzailerak, **arlotako administrazioei zuzendutako gomendioak** adierazten badituzte ere eta oraindik ere arlotako planetan edota programetan gehitzeko dauden arren, Udalek beren gain hartu beharreko lurralde-mailako determinazioak izan litezke.
- v. Eta, azkenik, Lurraldearen Zatiko Planetik egindako ohar batzuk **udal-ekintzarako iradokizun** gisa soilik, funtsean “baliabideen erreserba” prozesuaren mende dauden lurzoruetan burutuko diren aukerak izanik, horietan udalaren erabakiak eta ekintzak lurraldean eskumena duten arlotako beste organismo batzuen erabakiekin eta ekintzekin alderatu beharrekoak.

Lurraldearen Zatiko Plan hau idazteko garaian kontuan hartu den helburua eta, are gehiago adierazi den asmo handiagoa eta ilusioa hauxe da, Plan honetan Udalek beren ekimenetarako oinarria eta euskarria topatzea, betiere lurralde modernoa, ingurumenari dagokionez kalitate handikoa eta lehiakorra eraikitzeko guztion erronka grinatsuari aurre egin nahi badiote eta aurre egiteko asmoa badute, bere osotasunean gero eta modu integratuagoan jardunez.

Lurraldearen Zatiko Planaren udal-plangintzaren gaineko eragintzat har daitezkeen artean, udal-plangintza Lurraldearen Zatiko Plan honetara egokitu beharra adieraz daiteke. Ildo horretan, atal honetan adierazitako determinazio lotesleak eta, hala badagokio, udal-ekintzarako ematen diren iradokizunak jaso beharko ditu.

ALEGRIA-DULANTZI

i. Hartzen dituen zatiak: C-5 eta B-6

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten guneak: eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-7

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-2, AE-6, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Egoitza-espazio berria

Herrigunearen pisu erlatiboa indartzea defendatzen da (Araba Erdialdeko hiri-sistemaren barruan Udalerriari eman zaion hierarkiarekin bat datorrena), egoitza-espazioaren dibertsifikazioa lortu nahi duen garapena bultzatuz, Erregulazio Orokorren RNC-6.2. atalean bildutako irizpideekin bat etorritik.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Edozein esku-hartzeren garapenean berariazko arloko araudiak ezarrita dituen baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru gehienek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina, handia edo oso handia dutela kontuan izanik.

v.3. Balio agrologikoa duten lurzorua

Hirigunea inguratzen duten balio agrologiko handiko lurzoruen babes aktiboa bultzatzea.

v.3. Higadura

Iturrieta inguruko mendien higadura-prozesuetan arreta jartzea.

AÑANA

i. Hartzen dituen zatiak: A-4

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-5

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Zaharberritzeko ekintzak aurreikustea, A-2622aren hegoaldean, Gesaltza-Añanako hirigunearen ekialdera kokatutako lurzoruen zerrendan eragina duen eta udal mugaraino zabaltzen den higadura-prozesua kontrolatzeko.

ARMIÑON

i. Hartzen dituen zatiak: B-8

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa estrategikoak: OE-9

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-1, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Azpiegitura berriak

Aurreikusitako azpiegitura berriek –Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura eta abiadura handiko trenbidearen trazadura berria– udalerrian izan dezaketen eragina kontuan hartzea. Ia paraleloak diren bi igarobideek iparraldetik hegoaldera zeharkatzen dute udalerria, hirigune nagusiaren bi aldeetatik, eta diseinuaren ezaugarriak egokitu egin beharko dira ingurunean ondo integratzea ziurtatzeko, lurraldean oztopo bihur ez daitezen.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berriazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru gehienek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo handia dutela kontuan izanik.

ARRAIA-MAEZTU

i. Hartzen dituen zatiak: C-6

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-8

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-6

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Arraia-Maeztuko nekazaritza-espazioa

3. planoan, "Lurraldearen gobernu. Prozesuak" barne hartutako espazioa, "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuan alegia, nekazaritzaren ikuspegitik dituen balio handiak aktiboki iraunarazteko eta Maeztu, Birgara Goien eta Apinaizeko hiriguneen artean erliebea leunagoa delako mugatu dagoen hutsune honek lurraldean duen esanahia indartzeko.

Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo handia duten lurzoruek dira.

v.2. Laminoria harrobia berreskuratzea

Erauzketarako eremuak duen ahaltasuna agerian utzi nahi da lurraldean eragina duen beste xede batera birmoldatzeko, baliabidea agortuzat jotzen denean, ustiapenerako errentagarria ez denean edo emakida-aldiaren amaiera iristen denean.

Honako hau gomendatzen da:

- Harrobiaren zaharberitze-lanari ekitea, profil topografikoaren aldaketa onura atera ahal izango dioten aisia edo kirol jardueren garapenerako aprobetxatzen saiatuz.
- Ingurunea zaharberitzea ingurumenari dagokionez balio handiko espazio bihurtzeko, esku-hartzea oinarritzen deneko AE-6 Ekintza Egituratzaileran proposatzen den Ingurunearen Aprobetxamendurako Ibilbideari irakaskuntza praktikoak eskaini ahal izango baitizkio.
- Hornikuntza-eremuan instalazio eta zerbitzu osagarri egokiak integratzea, egokituz jotzen bada espazio honetako ibilbideari eta berariazko erabilerari lotutako aldi baterako alojamendu-eremuak aurreikusiz.

v.3. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berriazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru askok akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutela kontuan izanik.

v.4. Higadura

Udalerriko eremu desberdinetan eragina duten higadura-prozesuen egoera aztertzea, batik bat Capulduy muinoari eta Mantxibio, Soila eta Arburu muinoen inguruko mendietan, baita Bitigarra/San Kristobal mendi hegaletan eta Iturrieta Mendietan ere eragina duten horiena. Antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztu eta bultzatzea.

Birgara Goien eta Barren, Apinaiz, Atauri, Elortza eta Aletxa guneen artean mugatuta dagoen eremuaren berezitasun geoteknikoetan arreta jartzea, eraikuntza-ekintzari baldintzak ezartzen dizkiotelako.

ARRAZUA-UBARRUNDIA

i. Hartzten dituen zatiak: B-1, B-2, B-3, B-5 eta C-5

ii. Hiri-sistema:

Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko gunek (Ordezko habitatak).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-1, AE-4, AE-6

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Ullibarriko urtegiaren ertza lehengoratzea.

Ullibarri-Gamboa eta Marieta-Larrinzarko guneen artean, Ullibarriko urtegiaren ipar-ekialdeko ertza lehengoratzeko lanari ekitea gomendatzen da, komenigarria baita ur-laminaren aisia-erabilerari lotuta urtegiaren ertzetan egiten diren jarduera gehienak uztea. Esku-hartzeak honako hauek kontuan hartu beharko lituzke:

- Urtegiaren inguruko lurzoruetako ingurumenaren zaharberritzea aurreikustea, Landa eta Marieta-Larrinzar artean eta A-3014 errepidearen eta urtegiaren ertzen artean dagoen espazioaren landaredi estalkia lehengoratzuz.
- Ur-laminara hurbiltzeko gunek berriro antolatzea, bertako paisiaz gehiago gozatu ahal izateko eta zerbitzuak ezartzeko (jatetxea edo mantendu nahi izango den besteren bat) kokalekuak espresuki mugatuz.
- Zolatu gabeko sarbideak eraikitzeko aukera baloratzea, begiratokietan, hegazkinak behatzeko guneeetan eta abar amaitu daitezkeenak.
- Ur-laminatik urrun dauden aparkalekuak sortzea, neurri mugatukoak edo inguruko paisaian zatitu eta integratutakoak.

Kontuan hartu beharra dago eraginpeko lurzoruek urrakortasun-maila ertaina dutela akuiferoen kutsadurarekiko, puntualki eta ur-laminaren ertzean handia eta oso handia izan daitezkeena.

Esku-hartze honek Burgelu eta Arrazua-Ubarrundia udalerrietan ere izango du eragina.

v.2. Berrikuntzaren Arkuko landa-espazioak finkatu eta baloratzea

3. planoan, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak” alegia, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuaren mende dauden esparru batzuk identifikatu dira, “lurraldea transformatzeko” prozesuaren mende dauden beste batzuekiko alternantzia. Berrikuntzaren Arkuko lurraldearen espazioak espresuki okupatu nahi izatearen arrazoia hau da, eraikuntza-jarraitutasunaren eraketa saihestean oinarritutako jatorrizko ideia. Beraz, “arkuaren” egitura orokorraren barruan hiri-okupaziotik libre dauden eremuak mantentzea lurraldearen ikusmoldean bertan jatorria duen ideia da. Espazio horiek ezin dira hartu etorkizuneko hazkunderen esperoan egon daitezkeen eremu gisa, berezkoak dituzten edo lortuko dituzten ingurumen-balioengatik eragiketa orokorraren barruan hutsune gisa lurraldean adierazgarritasun handiena lortzen duten espazio gisa baizik.

Orain sartuta daudeneko lurraldearen “prozesuak” espazio horietan ingurumeneko esku-hartzeari lehentasuna emateko nahia adierazten du. Beren tratamendua eta bereganatu dezaketen emaitzazko izaera eskumena duen arloko administrazioak esku-hartzeari begira egingo duen balorazioaren arabera izango badira ere, lurralde-antolamenduaren ikuspegitik hartu beharko litzatekeen orientazioa adierazi daiteke:

- Nekazaritza eta basogintzako mota desberdinetako mosaikoak sortzea, hiri-jardueren jarraitutasun posiblea etengo dutenak eta igarobide ekologikoen sorkuntzan eta multzoaren ingurumen-kalitatea mantentzen lagunduko dutenak.
- Ingurumenean egingo den esku hartzea laborantzako teknika berritzaileen aplikazioa bultzatzeko aprobetxatzea, ingurumenarekiko eta giza osasunarekiko errespetu handiagorekin bat etorriko diren teknikak izanik.
- Eremu zehatzetan basoak berritzea, gaur egun desagertuta dauden Lautadako berezko espezieekin, bertan zuhaitz-eremuak lehengoratzeko ahalbidetuz.

Berrikuntzaren Arkuko “hutsuneak” ia gehienak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia duten lurzoruetan daudela kontuan hartu beharko da.

v.3. Zadorraren igarobide berdea

Zadorra ibaiaren ibilgua 3. planoan barne hartu da, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuan, bere ingurumen-balioa aintzatesteko eta bertako ingurumenean burutuko den jarduerari lehentasuna emateko.

Zadorraren igarobidea ardatz berde gisa itxuratzen da, ibaiaren ibilguari jarraituz Vitoria-Gasteizko hirigunearen eta Ullibarriko urtegiaren arteko ordezko paisaia-ibilbide baten sorkuntzan lagundu dezakeena, oinezkoak eta txirrindulariak bertatik igaroz, eta bi udalerrri zeharkatuz: Arrazua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz.

Zeharkatzen duen eremuak duen izaeraren arabera igarobidea tratamendu desberdinen eraginpean gera badaiteke ere, ondoren adierazten diren iradokizunak kontuan hartzea gomendatzen da:

- Bereizitako ibiltarteak dagokien tratamendurako bereiztea: N-I errepidearen saihesbidearen barrukoa eta kanpukoa.

- Lehenak, bere sorkuntzan aldaketak onartzeko adina hedadura izan arren, hiri-mailaren azpiko izaerari erantzun beharko lioke, hiritarrek erabiltzea erraztuz.
- Bigarrena landa-izaerako parke lineal gisa eratu beharko litzateke, ibaiaren ertzetik pasealekua sustatuz, gutxieneko zerbitzuekin eta oinezkoentzat nahiz txirrindularientzat egokitutako egonaldirako eremuekin.
 - Ibilbidearen gune nagusi edo mugari gisa jardun dezakeen ekipamenduren bat barne har dezake, ezarpenerako lekuari eta sortu nahi den igarobide-motari egokitua, Gamarra Gutxian edo Arroiabe inguruetan lehentasunez kokatuko litzatekeena.
 - Ibaiaren ertzeko basoa lehengoratzea kontuan hartu beharko litzateke.

v.4. Azpiegitura berriak

Aurreikusitako azpiegitura berriek –Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura eta abiadura handiko trenbidearen trazadura berria– udalerrian izan dezaketen eragina kontuan hartzea. Bi igarobideek eragina dute geografiaren puntu desberdinetan udalerrian, eta diseinuaren ezaugarriak egokitu egin beharko dira ingurunean ondo integratzea ziurtatzeko, lurraldean oztopo bihur ez daitezen.

v.5. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru gehienek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutela kontuan izanik.

v.6. Higadura

Elgea mendilerroaren inguruko mendietako higadura-prozesuen egoera aztertzea, baita Ullibarriko urtegiaren hegoaldeko eta mendebaldeko ertzetan eta Goiaingo Industrialdea mugatzen duen malkarrean puntualki aurkitu diren horiena ere. Antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztu eta bultzatzea.

ASPARRENA

i. Hartzen dituen zatiak: B-1, C-3 eta C-5

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten guneak: eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-4, OE-6

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-4

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Arriola eta Narbaxa arteko jarduera berriak

Guneen arteko konexioa indartzea gomendatzen da, jarduera mistoak ezartzeko espazio egokia sortuz. Honako hauek kontuan hartu beharko lirateke:

- Esku-hartzea bi herrien artean dagoen landa-konexioan oinarritzea –balio agrologiko handiko lurzoruen muga gisa diharduena– eta Urkila mendilerroaren hegalek zehaztutako malden eten-lerroan mugatzea.
- Jarduera mistorako espazioa den aldetik, ingurunean kokatu ezingo diren beste erabilera batzuekin bateragarriak izango diren produkzio-jarduerari harrera egitea.
- Espazio librearen erabilerrara lotutako jardueren ezarpena bultzatzea, horri lotutako aldi baterako alojamenturako aukeraren osagarri gisa jardunez.
- Antolamenduan izaera desberdina duten jardueren arteko egituraketa-elementuak bilatzea eta premia desberdinak beteko direla ziurtatzea, horietako bakoitzaren garapenean eraginkortasuna helburutzat hartuta.

v.2. Higadura

Urkila mendilerroaren hegaletako eta Altzania mendietako higadura-prozesuen egoera aztertzea eta antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztu eta bultzatzea.

BARRUNDIA

i. Hartzen dituen zatiak: B-1, C-3 eta C-5

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: populaketa sakabanatuko bilbe unitarioko egitura duten guneak.

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-4, AE-5

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Ullibarriko urtegiaren ertza lehengoratzea.

Ullibarri-Gamboa eta Marieta-Larrinzarko guneen artean, Ullibarriko urtegiaren ipar-ekialdeko ertza lehengoratzeko lanari ekitea gomendatzen da, komenigarria baita ur-laminaren aisia-erabilerari lotuta urtegiaren ertzetan egiten diren jarduera gehienak uztea. Esku-hartzeak honako hauek kontuan hartu beharko lituzke:

- Urtegiaren inguruko lurzoruetako ingurumenaren errestaurazioa aurreikustea, Landa eta Marieta-Larrinzar artean eta A-3014 errepidearen eta urtegiaren ertzen artean dagoen espazioaren landaredi estalkia lehengoratzuz.
- Ur-laminara hurbiltzeko guneak berriro antolatzea, bertako paisaiatz gehiago gozatu ahal izateko eta zerbitzuak ezartzeko (errestaurazioa edo mantendu nahi izango den besteren bat) kokalekuak espresuki mugatuz.
- Zolatu gabeko sarbideak eraikitzeak aukera baloratzea, begiratokietan, hegazkinak behatzeko guneetan eta abar amaitu daitekeenak.
- Ur-laminatik urrun dauden aparkalekuak sortzea, neurri mugatukoak edo inguruko paisaian zatitu eta integratutakoak.

Kontuan hartu beharra dago eraginpeko lurzoruek urrakortasun-maila ertaina dutela akuiferoen kutsadurarekiko, puntualki eta ur-laminaren ertzean handia eta oso handia izan daitekeena.

Esku-hartze honek Burgelu eta Arrazua-Ubarrundia udalerrietan ere izango du eragina.

v.2. Zadorra Goitiko nekazaritza-espazioak

Zadorra Goitiko lurzoruak 3. planoan, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuaren eraginpean geratzen dira, nekazaritzako balio handiko lurzoruak aktiboki iraunarazteko esku hartzeari lehentasuna eman eta esku-hartze horretan oinarritzeko, hutsune diren aldetik balio egituratzailea hartzen baitute Araba Erdialdeko lurralde osoan.

Horrekin B-1 Lurralde Zatiaren izaera indartu nahi da, Zadorra Goitia ibarreko eta bere ibaiadarretako tratamendu unitarioa sustatzean erabaki hori C-5 Lurralde Zatiara luzatzen bada ere, hiri-transformaziorako proposamenen osagarri gisa.

v.3. Ozetako hornikuntza-espazioa

A-3012 errepidearen bidegurutzean, batetik, Marieta-Larrinzarrerako norabidean, eta bestetik, Maturanarantz hornikuntza-gune nagusi bat sortzea iradokitzen da. Urtegietatik gertu dagoen aukera-eremua da, B-1 Lurralde Zatiarekin duen loturarako funtsezko kokalekua eratzeko eduki sinbolikoa duena, hain zuzen ere ur-laminaren bi aldeetara. Horretarako honako hauek kontuan hartu beharko dira:

- Ekipamenduak “Ullibarri-Araia aisia-ibilbidea” AE-4 Ekintza Egituratzzailearen edukiarekin zerikusia izan behar luke, gaiari dagokionez ornitologiarekin lotuta.
- Espazio irekia eta egonaldirakoa sortzea, ekipamendua inguratuz –bertan landaredi estalkia lehengoratu eta basoak berritzeari ekingo zaio behar izanez gero–, eta espezieak eta landaredi naturalaren antolamendua errespetatuz.
- Mendijurren hegaztien behatoki bat sortzeko aukera aztertzea, xede horretarako espazio bat antolatuz.
- Espazioaren eta bertako eraikuntzen tratamenduan ingurunearen landa-ezaugarriak errespetatzea.

v.4. Axpuru-Hermua egituraketaren garapena

B-2 Lurralde Zatian hazkunde berriak bultzatzea, baldintza topografikoetara egokitutakoak eta inguruko landa-jarduerak errespetatuko dituztenak, aldi berean, dagoeneko daudenak indartuko dituzten hiriguneen arteko konexio berriak eraikiz. Horretarako honako hau iradokitzen da:

- Axpuru eta Hermua artean bi guneak iparraldetik lotuko dituen eta arku baten antzera inguruan sakabanatuta dauden eraikinak bildu eta malden eten-lerroa sortzen duen lursailaren uhinduretara egokituko den konexio-bide baten aurreikuspena aztertzea.
- Dentsitate txikiko egoitza-garapena lortzeko aukera kontuan hartzea, “Egoitza-kuantifikazioa” RNC-5 eta “Hazkunde-moduak” RNC-6 Erregulazio Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriko dena.
- Hermua inguruetan espazio libre ekipatu bat sortzeko aukera aztertzea. Bertan lurzoru lauak erabili ahal izango lirarteke bideek osatutako arku mendi-hegaletatik urruntzean.

v.5. Argomaniz eta Ezkerekotxa arteko egoitza-garapena

Egoitzako lurzoruaren ordezkotza eskaintza garatzeko aukera baloratzea, lurraldearen esparru berezi bat aprobetxatuz, bere ezaugarri fisiko eta paisaiakoengatik nahiz lurraldean duen kokapen bikainagatik.

Garapen horrek Argomaniz, Etxebarri-Urtupiana, Arrieta eta Ezkerekotxako hirigune txikien egituraketa finkatzeko aukera emango luke. Landa-errepideen bidez elkarri lotutako hirigune horien gainean, "Zadorrako nekazaritza-ibilbideak" AE-5 Ekintza Egituratzaillearen bidez, nekazaritza-jarduera kualifikatu nahi da.

v.6. Higadura

Elgeta mendilerroaren hegaletako eta Aldaia mendien iparraldeko hegaleko higadura-prozesuen egoera aztertzea eta antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztu eta bultzatzea.

BERANTEVILLA

i. Hartzen dituen zatiak: B-8 eta B-9

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru gehienek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo handia dutela kontuan izanik.

v.2. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Zadorra eta Ayuda ibarretako balio agrologiko handiko lurzoruen babes aktiboa bultzatzea.

v.3. Higadura

Txulato muinoaren iparraldeko hegaleko eta, Tobera inguruetan, Moraza inguruko mendietako higadura-prozesuen egoera aztertzea, antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztu eta bultzatzeko.

BERNEDO

i. Hartzen dituen zatiak: C-6 eta B-9

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Ega ibarreko nekazaritza-espazioa

Lurzoru horiek 3. planoan, "Lurraldearen gobernu. Prozesuak", "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuaren eraginpean daude, beren balio agrologiko handiaren zaintza aktiboari lehentasuna emateko. Ega ibarrari lotuta daude.

Kokapen estrategiko ona du B-9 Lurralde Zatiaren barruan eta Izki Parke Naturaletik gertu dago, eta kalitatezko produktuen laborantza ekologikoari lotutako proiektu esperimentaletarako leku hobezina dela esan daiteke.

v.2. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Markiz eta Arluzea artean, Molino ibarreko balio agrologiko handiko lurzoruen zaintza aktiboa bultzatzea, ingurumenari dagokionez inguruneak duen balioaren osagarri gisa.

v.3. Higadura

Capilduy muinoaren eta inguruko mendien hegaletako, eta San Joan eta Belabia muinoetako higadura-prozesuen egoera aztertzea, antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztu ahal izateko. Ekintza horiek aurreko puntuan aipatu diren balio agrologiko handiko lurzoruen zaintza aktiboari lotuta gara litezke, esparru berean baitaude.

v.4. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru guztiek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutela kontuan izanik, udalerraren mendebaldera dagoen zerranda estu batek izan ezik.

KANPEZU

i. Hartzen dituen zatiak: C-6 eta B-9

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten gunek: eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-11

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-6

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Santikurutze Kanpezuko nekazaritza-espazioa

3. planoan, "Lurraldearen gobernua. Prozesuak", "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuaren eraginpean dauden lurzoruak dira, lurraldearen hutsune gisa duten garrantzia indartzeko eta beren balio agrologiko handiaren zaintza aktiboa bultzatzeko.

Egako nekazaritza-espazioarekin batera, Bernedon kokatua, B-9 Lurralde Zatiaren ezaugarri bereko bi esparruak osatzen dituzte. Ega ibaiari lotutako balio agrologiko handiko lurzoruak dira, Izki, Rosaria eta Istora bere ibaiadarrek ureztatzen dituztenak.

v.2. Higadura

Kodes mendilerroaren iparraldeko hegaleko eta udalerraren iparraldeko erdia tolesten duten mendietako higadura-prozesuen egoera aztertzea, zaharberritzeko ekintza egokiak zehaztearren.

v.3. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berriazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru gehienek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo oso handia dutela kontuan izanik.

KUARTANGO

i. Hartzen dituen zatiak: B-2

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: populaketa sakabanatuko bilbe unitarioko egitura duten guneak.

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-3

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Arkamo mendilerroaren iparraldeko eta Badaiko Brava mendilerroaren mendebaldeko hegaletako eta Gibijo mendilerroaren hego-ekialdeko tolesetako higadura-prozesuen egoera aztertzea, zaharberritzeko ekintza egokiak zehaztearren eraginaren kausak eta larritasuna baloratu ahal izateko.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoruen ia hiru laurdenek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo oso handia dutela kontuan izanik.

BURGELU

i. Hartzen dituen zatiak: B-1, C-5 eta B-6

ii. Hiri-sistema:

Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko guneak (Ordezko habitatak).

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-7

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-2, AE-4, AE-5, AE-6, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Ullibarriko urtegiaren ertza lehengoratzea.

Ullibarri-Gamboa eta Marieta-Larrinzarko guneen artean, Ullibarriko urtegiaren ipar-ekialdeko ertza lehengoratzeko lanari ekitea gomendatzen da, komenigarria baita ur-laminaren aisia-erabilerari lotuta urtegiaren ertzetan egiten diren jarduera gehienak uztea. Esku-hartzeak honako hauek kontuan hartu beharko lituzke:

- Urtegiaren inguruko lurzoruetako ingurumenaren errehabilitazioa aurreikustea, Landa eta Marieta-Larrinzar artean eta A-3014 errepidearen eta urtegiaren ertzetan dagoen espazioaren landaredi estalkia lehengoratzuz.
- Ur-laminara hurbiltzeko guneak berriro antolatzea, bertako paisaiatzeko gehiago gozatu ahal izateko eta zerbitzuak ezartzeko (errehabilitazioa edo mantendu nahi izango den besteren bat) kokalekuak espresuki mugatuz.
- Zolatu gabeko sarbideak eraikitzeak aukera baloratzea, begiratokietan, hegazkinak behatzeko guneetan eta abar amaitu daitezkeenak.
- Ur-laminatik urrun dauden aparkalekuak sortzea, neurri mugatukoak edo inguruko paisaian zatitu eta integratutakoak.

Kontuan hartu beharra dago eraginpeko lurzoruek urrakortasun-maila ertaina dutela akuiferoen kutsadurarekiko, puntualki eta ur-laminaren ertzean handia eta oso handia izan daitezkeena.

Esku-hartze honek Arrazua-Ubarrundia eta Barrundia udalerrietan ere izango du eragina.

v.2. Argomaniz eta Ezkerekotxa arteko egoitza-garapena

Egoitzako lurzoruaren ordezeko eskaintza garatzeko aukera baloratzea, lurraldearen esparru berezi bat aprobetxatuz, bere ezaugarri fisiko eta paisaiakoengatik nahiz lurraldean duen kokapen bikainagatik.

Garapen horrek Argomaniz, Etxebarri-Urtupiana, Arrieta eta Ezkerekotxako hirigune txikien egituraketa finkatzeko aukera emango luke. Landa-errepideen bidez elkarri lotutako hirigune horien gainean, "Zadorrako nekazaritza-ibilbideak" AE-5 Ekintza Egituratzaillearen bidez, nekazaritza-jarduera kualifikatu nahi da.

v.3. Higadura

Udal-esparruaren hegoaldean antzeman diren higadura-prozesuak kontrolatzen aktiboki esku hartzea.

IRUÑA OKA

i. Hartzen dituen zatiak: B-2, B-3 eta B-6

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten guneak. Hazkunde selektiboa: hazkunde handia bultzatu behar deneko udalerrriak.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-3

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-1, AE-2, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Gasteizko mendien inguruko mendietako eta udalerrriaren hegoaldeko mugan San Bitores muinoko higadura-prozesuak aztertu eta kontrolean aktiboki esku hartzea.

Olabarri eta Langraiz Oka guneen artean iparralderantz hedatzen den eremuaren berezitasun geoteknikoetan arreta berezia jartzea, eraikuntzari baldintzak jartzen dizkion eremua izanik.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoruen ia erdiek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutela kontuan izanik.

v.3. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Zadorra ibarreko balio agrologiko handiko lurzoruak aktiboki zaintzea.

v.4. Azpiegitura berriak

Aurreikusitako azpiegitura berriek –Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura eta abiadura handiko trenbidearen trazadura berria– udalerrian izan dezaketen eragina kontuan hartzea. Bi igarobideek ipar-mendebaldetik hego-mendebaldera zeharkatzen dute udalerria, eta diseinuaren ezaugarriak egokitu egin beharko dira ingurunean ondo integratzea ziurtatzeko, lurraldean oztopo bihur ez daitezen.

Goitik doazen eta ezpondak sorrarazten dituzten trenbide-tarteen paisaia-soluzioa zaindu beharko da.

Bi azpiegituren iragazkortasuna ziurtatzea.

IRURAIZ-GAUNA

i. Hartzen dituen zatiak: C-5 eta B-6

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: populaketa sakabanatuko bilbe unitarioko egitura duten gunek.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-7

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-2, AE-5, AE-6, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Zadorra Goitiko nekazaritza-espazioak

Zadorra Goitiko lurzoruak 3. planoan, "Lurraldearen gobernua. Prozesuak", "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuaren eraginpean geratzen dira, nekazaritzako balio handiko lurzoruak aktiboki iraunarazteko esku hartzeari lehentasuna eman eta esku-hartze horretan oinarritzeko, hutsune diren aldetik balio egituratzailea hartzen baitute Araba Erdialdeko lurralde osoan.

Horrekin B-1 Lurralde Zatiaren izaera indartu nahi da, Zadorra Goitia ibarreko eta bere ibaiadarretako tratamendu unitarioa sustatzean erabaki hori C-5 Lurralde Zatiara luzatzen bada ere, hiri-transformaziorako proposamenen osagarri gisa.

v.2. Argomaniz eta Ezkerkotxa arteko egoitza-garapena

Egoitzako lurzoruaren ordezkotza eskaintza garatzeko aukera baloratzea, lurraldearen esparru berezi bat aprobetxatuz, bere ezaugarri fisiko eta paisaiakoengatik nahiz lurraldean duen kokapen bikainagatik.

Garapen horrek Argomaniz, Etxebarri-Urtupiana, Arrieta eta Ezkerkotxako hirigune txikien egituraketa finkatzeko aukera emango luke. Landa-errepideen bidez elkarri lotutako hirigune horien gainean, "Zadorrako nekazaritza-ibilbideak" AE-5 Ekintza Egituratzaileraren bidez, nekazaritza-jarduera kualifikatu nahi da.

v.3. Higadura

Iturrieta Mendien inguruko mendietan eta, bereziki, Ezkerkotxa, Langarika eta Gereñuko guneen artean hedatzen den eremuan higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea.

LAGRAN

i. Hartzen dituen zatiak: B-9

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Enklabe berezietako bideen erabilera

B-9 Zatiaren erdiko sektorearen aukerak dibertsifikatzeko modu gisa, topografia zimurtsuak eskaintzen dituen enklabe egokiak aprobetxatu daitezke espazioan mugatutako erabilera bereziak ezartzeko, horrez gain bisitariak erakartzeko elementu gisa jardun dezaketenak.

Honako hau iradokitzen da:

- Semendia muinoa inguratzen duen Lagran eta Pipaon arteko landa-bidea finkatzea, ingurumenari dagokionez ibilbide erakargarri gisa.
- Produktu turistiko berezi bat –hotela kalitatezko ekipamenduekin osatuz– kokatu daiteke, ezartzen deneko lekura eta bere ezaugarrietara egokitua, proposatutako ardatza eta A-3130 errepidea elkartzen diren gunean, Lagrango hirigunearen kanpoaldean.
- Semendia muinoak mugatutako malda txikiagoko lurzoruak aprobetxatzea Lagran-Pipaon ibilbideak paseatzeko eta behatzeko bide gisa oinarritzat izan ditzakeen gutxieneko zerbitzuak ezartzeko.

Esku-hartze posible horien euskarri izango diren lurzoruek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo ertaina dutela kontuan hartu beharko da.

v.2. Higadura

Toloño-Kantabria mendilerroaren hegaletako eta inguruko mendietako higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea, udalerraren hegoaldeko muga.

v.3. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berriazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoruen ia %90ak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia duela kontuan izanik.

v.4. Balio agrologikoa duten lurzorua

Lagrango hirigunea inguratzen duten balio agrologiko handiko lurzorua aktiboki zaintzea.

LANTARON

i. Hartzen dituen zatiak: A-4 eta B-8

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-9

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Lantarongo Industrialdea

Lurralde Egitura berriaren sorkuntza eta inguruan aurreikusitako ekimenak aprobetxatzea Lantarongo Industrialdea produkzioarako gune espezializatu gisa indartzeko. Honako hau gomendatzen da:

- Industrialdea Zubillagako hirigunerantz hedatzea, egituraketa-zerbitzuak edo -hornikuntzak kokatzea aurreikusiz.
- Industrialdearen eskaintzaren nolabaiteko espezializazioa aztertzea, jardueramotari dagokionez nahiz beren garapenerako eskatzen diren dimentsioei dagokienez.
- Ebro ibaiaren ibilgura hurbiltzen diren ertzen tratamenduan arreta berezia jartzea. Lurzoru horiek ibaiak gainezka egiten duen lautadaren esparruan kokatzen direla kontuan hartu behar da.

Okupatzea gomendatzen den eremua balio agrologiko handia duten lurrek osatzen dute. Beraz, bertako hiri-transformazioa Udalerriarentzat oro har horrek berekin ekar ditzakeen abantailetan oinarrituta bakarrik justifikatu ahal izango litzateke.

v.2. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Ebro ibarreko balio agrologiko handiko lurzoruak aktiboki zaintzea.

LEGUTIANO

i. Hartzen dituen zatiak: B-1 eta B-3

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten gunek: eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-2

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-1, AE-4, AE-6

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Berrikuntzaren Arkuko landa-espazioak finkatu eta baloratzea

3. planoan, "Lurraldearen gobernu. Prozesuak" alegia, "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuaren mende dauden esparru batzuk identifikatu dira, "lurraldea transformatzeko" prozesuaren mende dauden beste batzuekiko alternantzian. Berrikuntzaren Arkuko lurraldearen espazioak espresuki okupatu nahi izatearen arrazoia hau da, eraikuntza-jarraitutasunaren eraketa saihestean oinarritutako jatorrizko ideia. Beraz, "arkuaren" egitura orokorraren barruan hiri-okupaziotik libre dauden eremuak mantentzea lurraldearen ikusmoldean bertan jatorria duen ideia da. Espazio horiek ezin dira hartu etorkizuneko hazkunderen esperoan egon daitezkeen eremu gisa, berezkoak dituzten edo lortuko dituzten ingurumen-balioengatik eragiketa orokorraren barruan hutsune gisa, lurraldean adierazgarritasun handiena lortzen duten espazio gisa baizik.

Orain sartuta daudeneko lurraldearen "prozesuak" espazio horietan ingurumeneko esku-hartzeari lehentasuna emateko nahia adierazten du. Beren tratamendua eta bereganatu dezaketen emaitzazko izaera eskumena duen arloko administrazioak esku-hartzeari begira egingo duen balorazioaren arabera izango badira ere, lurralde-antolamenduaren ikuspegitik hartu beharko litzatekeen orientazioa adierazi daiteke:

- Nekazaritza eta basogintzako mota desberdinetako mosaikoak sortzea, hiri-jardueren jarraitutasun posiblea etengo dutenak eta igarobide ekologikoen sorkuntzan eta multzoaren ingurumen-kalitatea mantentzen lagunduko dutenak.
- Ingurumenean egingo den esku hartzea laborantzako teknika berritzaileen aplikazioa bultzatzeko aprobetxatzea, ingurumenarekiko eta giza osasunarekiko errespetu handiagorekin bat etorriko diren teknikak izanik.
- Eremu zehatzetan basoak berritzea, gaur egun desagertuta dauden Lautadako berezko espezieekin, bertan zuhaitz-eremuak lehengoratzeko ahalbidetuz.

Berrikuntzaren Arkuko “hutsuneak” ia gehienak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia duten lurzoruetan daudela kontuan hartu beharko da.

v.2. Goiaingo Industrialdearen birkualifikazioa

Arrazua-Ubarrundia udalerriri egoitza-garapen berri bat sortzea iradoki zaio, Parke Teknologikoaren eta Goiaingo Industrialdearen hiri-piezen artean, euren artean lurraldearen beste egituraketa-elementu bat balitz bezala jardun dezakeena. Esku-hartze hori sinergia positiboak sortzeko izango litzateke jarduera ekonomikoaren enklabeen artean eta Berrikuntzaren Arkua Araba Erdialdeko urtegiaraino hedatzea ahalbidetuko luke.

Jarduera horiek burutuz gero, Legutianoko udalerrian kontuan hartu beharko lirateke eskaintzen dituzten aukera berriak eta sinergia kualifikatzailea aprobeztatuko litzateke bereziki Industrialdearen fatxada berri bat N-240 errepidearen parean sortzeko. Ekintza hori, egokitze joko balitz, Industrialdearen birgaitzearekin osatu ahal izango litzateke, ingurumenaren eta funtzionaltasunaren ikuspegitik.

v.3. Higadura

Udalerraren iparraldeko inguruko mendietako eta Nafarrete inguruetan Urrunagako urtegiaren ertzetako higadura-prozesuek eraginpean hartzen dituzten eremuetan zaharberritzeko ekintzak aurreikustea.

v.4. Azpiegitura berriak

Aurreikusitako azpiegitura berriek –Etxabarri-Ibiña – Armiñon lotura eta abiadura handiko trenbidearen trazadura berria– udalerrian izan dezaketen eragina kontuan hartzea. Ia paraleloak diren bi igarobideek ipar-ekialdetik hego-mendebaldera zeharkatzen dute udalerria, ekialdeko ertzaren bi tartetan, eta diseinuaren ezaugarriak egokitu egin beharko dira ingurunean ondo integratzea ziurtatzeko, lurraldean oztopo bihur ez daitezen.

OTXANDIO

i. Hartzen dituen zatiak: B-1

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten guneak: eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera.

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Udalerriaren hegoaldeko inguruko mendietako higadura-prozesuen egoera aztertzea, Ubide eta Legutianoko udalerriekin mugakide diren lurzoruetan, zaharberritzeko ekintza egokiak zehaztearren eraginaren kausak eta larritasuna baloratu ahal izateko.

v.2. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Urkiola ibarreko balio agrologiko handiko lurzoruak aktiboki zaintzea.

PEÑACERRADA-URIZAHARRA

i. Hartzen dituen zatiak: B-9

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-10

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-7

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Udalerrian eragin puntuala duten higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea.

Udalerraren erdigunean eragina duten berezitasun geoteknikoetan arreta berezia jartzea, Urizaharra eta Pagoetako hiriguneak barne hartuz, eraikuntzari baldintzak ezartzen dizkioten berezitasunak direla kontuan izanik.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru guztiek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo oso handia dutela kontuan izanik.

v.3. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Urizaharra eta Pagoetako ingurunean hedatzen diren balio agrologiko handiko lurzoruak aktiboki zaintzea.

RIBERA ALTA

i. Hartzen dituen zatiak: B-2, A-4 eta B-8

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: populaketa sakabanatuko bilbe unitarioko egitura duten guneak.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-1

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-1, AE-3

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Baia ibaian zehar trenbideak egiten duen ibilbidearen hornikuntza-gune nagusia

AE-3 Ekintza Egituratzaileran bildutako proposamena aprobetxatu daiteke, hain zuzen ere Baia ibaian zehar trenbidearen ibilbide turistiko bat gauzatzeari buruzkoa, baita bertako gune nagusiak itxuratzeko lotutako premia ere, ibarraren hegoaldean dauden hirigune txikiak indartzea ahalbidetuko lukeen hornikuntza-motako esku-hartzea burutzeko. Honako hauek kontuan har daitezke:

- Ibilbide turistikoaren hegoaldeko gune nagusia Igai inguruetara eramatea, erabiltzaileak ibilbidea hasteko ibarrean barneratzera behartzeko helburuari jarraituz, eta horrela jende gutxi ibiltzen deneko asentamenduak ezagutzera emateko.
- Trenaren geltokiko eraikinaren materialak eta diseinua zaindu beharko lirateke, ingurunean integratuta gera dadin. Neurriek geraleku bati dagozkionak izan behar lukete, gutxienezko zerbitzuekin, bidaiariak gorabehera meteorologikoetatik babesteko nasan tarte estali bat bermatuz. Beharrezkoa izango da aparkalekuak paisaian erabat integratuta geratzea.
- Ibilbide turistikoaren trenbide-terminala sendotu beharko litzateke, proposatutako ibilbidearen zerbitzura hornikuntza-gune bat sortuz, aurretik landaredi estalkia zaharberritzeari eta, hala badagokio, itzalpeak sortzeko ezinbestekoak diren basoak berritzeari ekin zaieneko espazio libre baten sorkuntzarekin osatua.
- Gomendio hau gauzatzeko Udalak hartuko duen baiezkoko edo ezezko erabakiak ez du salbuetsiko geraleku bat eraikitzeko premia, beharrezkoa baita trenbidearen ibilbidea hasi edo amaitzeko, gauzatuko balitz behintzat.

v.2. Higadura

Atalaia, Somo eta Montemayor muinoetan antzemandako higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea.

Udalerriaren mendebaldeko eremuan eragina duten berezitasun geoteknikoetan arreta berezia jartzea, Vitoria, Arreo eta Paul guneak barne hartuz, eraikuntzari baldintzak ezartzen dizkioten berezitasunak direla kontuan izanik.

v.3. Azpiegitura berriak

Etxabarri-Ibiña – Armiñon loturak udalerraren ekialdeko ertzean izan lezakeen eragina kontuan hartzea. Bere diseinuaren ezaugarriak egokitzea gomendatzen da ingurunean integratuta gera dadin, eta oztopo-efektua saihesteko.

ERRIBERA BEITIA

i. Hartzen dituen zatiak: B-2 eta B-8

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten guneak: eskualde-mailaren azpitik interesgarriak diren guneen hazkundera.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-9

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berriazko arloko araudiak udalerraren hego-ekialdeko muturrean, Rivagudako gunearen inguruan burutzen den edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, zona horretako lurzoruek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo handia dutela kontuan izanik.

v.2. Azpiegitura berriak

Abiadura handiko trenbidearen trazadura berriak udalerraren ekialdean, orain dagoen lineara asimilatu artean egiten duen tartean izan dezakeen eragina kontuan hartzea. Diseinuaren ezaugarriak egokitu beharko dira ingurunean integratuta geratzen dela ziurtatzeko, horrela lurraldean oztopo bihurtzea saihestuz.

AGURAIN

i. Hartzten dituen zatiak: B-1, C-5 eta B-6

ii. Hiri-sistema:

Hiri-espazio nagusiak izateko bokazioa duten guneak. Hazkunde selektiboa: hazkunde handia bultzatu behar deneko udalerrriak.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-6

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-2, AE-5, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Zadorra Goitiko nekazaritza-espazioa

Zadorra Goitiko lurzoruak 3. planoan, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuaren eraginpean geratzen dira, nekazaritzako balio handiko lurzoruak aktiboki iraunarazteko esku hartzeari lehentasuna eman eta esku-hartze horretan oinarritzeko, hutsune diren aldetik balio egituratzailea hartzten baitute Araba Erdialdeko lurralde osoan.

Horrekin B-1 Lurralde Zatiaren izaera indartu nahi da, Zadorra Goitia ibarreko eta bere ibaiadarretako tratamendu unitarioa sustatzean erabaki hori C-5 Lurralde Zatiara luzatzen bada ere, hiri-transformaziorako proposamenen osagarri gisa.

v.2. Mezkia-Egilatz arteko espazio librea

Aguraingo ekialdeko hiri-garapen berrien artean dauden lurzoruak eta Asparrena-Donemiliagako Industrialdean aurreikusita dauden jarduera ekonomikorako lurzoruak 3. planoan, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuaren eraginpean geratzen dira N-I autobidearen frontean bi garapenen jarraitutasunik eza ziurtatzeko asmoz.

v.3. Higadura

Iturrieta mendien iparraldeko hegaletik udalerrriaren hegoaldeko mugan zabal hedatzen diren higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea.

v.4. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Udalerriko balio agrologiko handiko lurzoruak aktiboki zaintzea, hirigunearen hegoaldera kokatuta dauden horietan ekintza positiboa integratu ahal izanik, Egileor, Alangua eta Arrizalako eremuan, aurreko puntuan aipatutako higadura-prozesuak kontrolatu eta indargabetzera bideratutako esku-hartzeekin.

DONEMILIAGA

i. Hartzen dituen zatiak: B-1, C-3, C-5 eta B-6

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: populaketa sakabanatuko bilbe unitarioko egitura duten guneak.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-6

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-2, AE-4, AE-6, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Zadorra Goitiko nekazaritza-espazioa

Zadorra Goitiko lurzoruak 3. planoan, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuaren eraginpean geratzen dira, nekazaritzako balio handiko lurzoruak aktiboki iraunarazteko esku hartzeari lehentasuna eman eta esku-hartze horretan oinarritzeko, hutsune diren aldetik balio egituratzailea hartzen baitute Araba Erdialdeko lurralde osoan.

Horrekin B-1 Lurralde Zatiaren izaera indartu nahi da, Zadorra Goitia ibarreko eta bere ibaiadarretako tratamendu unitarioa sustatzean erabaki hori C-5 Lurralde Zatiara luzatzen bada ere, hiri-transformaziorako proposamenen osagarri gisa.

v.2. Mezkiea-Egilatz arteko espazio librea

Aguraingo ekialdeko hiri-garapen berrien artean dauden lurzoruak eta Asparrena-Donemiliagako Industrialdean aurreikusita dauden jarduera ekonomikorako lurzoruak 3. planoan, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuaren eraginpean geratzen dira N-I autobidearen frontean bi garapenen jarraitutasunik eza ziurtatzeko asmoz. Lurzoru libreen zerrenda horrek Egilatzeko trikuharriaren ezarpena barneratu beharko luke, pasealeku linealean integratuz.

v.3. Axpuru-Hermua egituraketaren garapena

B-2 Lurralde Zatian hazkunde berriak bultzatzea, baldintza topografikoetara egokitutakoak eta inguruko landa-jarduerak errespetatuko dituztenak, aldi berean, dagoeneko daudenak indartuko dituzten hiriguneen arteko konexio berriak eraikiz. Horretarako honako hau iradokitzen da:

- Axpuru eta Hermua artean bi guneak iparraldetik lotuko dituen eta arku baten antzera inguruan sakabanatuta dauden eraikinak bildu eta malden eten-lerroa

sortzen duen lursailaren uhinduretara egokituko den konexio-bide baten aurreikuspena aztertzea.

- Dentsitate txikiko egoitza-garapena lortzeko aukera kontuan hartzea, “Egoitza-kuantifikazioa” RNC-5 eta “Hazkunde-moduak” RNC-6 Erregulazio Orokorrean ezarritakoarekin bat etorriko dena.
- Hermua inguruetan espazio libre ekipatu bat sortzeko aukera aztertzea. Bertan lurzoru lauak erabili ahal izango lirateke bideek osatutako arkuak mendihagaletatik urruntzean.

v.4. Higadura

Urkila mendilerroa, Entzia mendilerroa eta Iturrieta inguruko mendietako –Adana, Uribarri-Jauregi eta Txintxetruko guneen inguruan– higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea, udalerraren zati handi batean eragina izanik.

UBIDE

i. Hartzen dituen zatiak: B-1

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Udalerraren hegoaldeko muga inguruko mendietan puntualki eragina duten higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea.

URKABUSTAIZ

i. Hartzen dituen zatiak: B-2

ii. Hiri-sistema:

Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko gunek (Ordezko habitatak).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-3, AE-8

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Urkabustaizko nekazaritza-espazioa

Goiuri-Ondona, Oiardo, Uzkiario eta Untzagako guneen artean mugatutako lurzorua barne hartzen ditu. 3. planoan bilduta daude, eta "Lurraldearen gobernuaren prozesuak", "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuen eraginpean daude, beren kokapenaren arabera balio agrologiko handia duten lurzoruen babes aktiboa sustatzeko asmoz, Gorbeia Parke Naturaltik gertu daudenez espazio natural horretarako igarobide gisa bereizi ahal izango liratekeenak.

v.2. Higadura

Udalerriko zona desberdinetan eragin puntuala duten higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea, beren topografia irregularrarekin bat etorritik.

Udalerraren hego-ekialdeko lurzoruetan, Abornikano guneari inguruan eragina duten berezitasun geoteknikoetan arreta berezia jartzea, eraikuntzari baldintzak ezartzen dizkieten berezitasunak izanik.

v.3. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak udalerraren hegoaldearen erdian garatzen den edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, lurzoruek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutela kontuan izanik.

VALDEGOVIA

i. Hartzen dituen zatiak: A-4

ii. Hiri-sistema:

Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko gunek (Ordezko habitatak).

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-5

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Omecillo ibarreko nekazaritza-espazioa

3. planoan, "Lurraldearen gobernuaren prozesuak", "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuan barne hartzen diren lursailak dira, Haranetako eskualdearen erdi-erdian kokatuta dauden balio agrologiko handiko lurzorua aktiboki zaintzea izanik helburua, hutsuneak diren aldetik, lurraldea egituratzeko elementuak baitira.

Ingurumenaren arloko lehentasunezko esku-hartzeak ibaiak gainezka egiten dueneko lautada adierazten duen eremutik hedatzen diren akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina edo handia duten lurzorua direla kontuan hartu behar du.

v.2. Komunikabideen sistemako ekintzak

Jarraian adierazitako ibilbideei paisaia-tratamendua emateko aukera aztertzea, udal-lurraldearen egituraketa indartzearen:

- A-3318 errepidea, Subijana-Morillas, Ormijana, Axkoeta, Artatza, Barron, Guinea eta Karkamu herrietan zehar.
- A-2625 eta A-2622 errepideak lotzen dituen errepidea Osma, Astulez, Mioma, Basabe, Acebedo, Valluerca eta Quintanilla de Valdegovia herrietan zehar.

Halaber, Lahoz, Lalastra, Arroyo de San Zadornil, San Zadornil, Quejo, Nograro, Barrio eta Bachicabo herriak eta Sobronerako A-2122 errepidea komunikatzen dituen Burgosko Larrialdi Nuklearrerako Planaren "Komunikazio, Ebakuazio eta Ohartarazpen Bidean" beharrezkoak diren hobekuntzak eta/edo egokitze-ekintzak bultzatzea gomendatzen da, ebakuaziorako lehentasunezko zat jotzen baita Santa Maria de Garofaño zentrolean larrialdi nuklearrik izanez gero.

v.3. Higadura

Artzena mendilerroaren ipar-mendebaldeko hegalean eragin handia duten higadura-prozesuen egoera aztertzea, Valderejoko Parke Natural osoan ia eta Sobrongo ingurumen-erreserban eragin nabarmena izanik. Forma mugatuagoa duten horien antzera udalerrriaren erdialdeko muinoen kateatzean zehar sortzen dira –Raso, Olvedo, Cantoblanco– baita Arkamo mendilerroaren inguruko mendietan ere. Antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztea eta, ondoren, bultzatzea.

Udalerrriaren ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko muturretako lurzoruetan eragina duten berezitasun geoteknikoetan arreta berezia jartzea, bereziki ipar-ekialdeko muturrean, Arkamo mendilerroaren hegalarekin eta inguruko mendiekin bat etorriz, Karkamo eta Fresneda guneeetara iristen baita.

v.4. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoruen ia %90ak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina, handia edo oso handia duela kontuan izanik.

HARANA

i. Hartzen dituen zatiak: C-6

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: --

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Bitigarra/San Kristobal eta Cruz de Alda/Arlaba muinoen hegaletan eragina duten higadura-prozesuen egoera aztertzea, batik bat Kontrastako gunearen inguruan. Antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztea eta, ondoren, bultzatzea.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak Cruz de Alda/Arlaba muinoen hegaletan burutu ahal izango litzatekeen edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, lurzoruek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutela kontuan izanik.

VITORIA-GASTEIZ

i. Hartzen dituen zatiak: B-1, B-2, B-3, B-5, C-5 eta B-6

ii. Hiri-sistema:

Vitoria-Gasteizko erdigunea.

iii. Eragiketa Estrategikoak: OE-2, OE-3, OE-7

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-1, AE-2, AE-6, AE-7, AE-8, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Berrikuntzaren Arkuko landa-espazioak sendotu eta baloratzea

3. planoan, "Lurraldearen gobernu. Prozesuak" alegia, "lurraldea birkualifikatzeko" prozesuaren mende dauden esparru batzuk identifikatu dira, "lurraldea transformatzeko" prozesuaren mende dauden beste batzuekiko alternantzian. Berrikuntzaren Arkuko lurraldearen espazioak espresuki okupatu nahi izatearen arrazoia hauxe da, eraikuntza-jarraitutasunaren eraketa saihestean oinarritutako jatorrizko ideia. Beraz, "arkuaren" egitura orokorraren barruan hiri-okupaziotik libre dauden eremuak mantentzea lurraldearen ikusmoldean bertan jatorria duen ideia da. Espazio horiek ezin dira hartu etorkizuneko hazkundearen esperoan egon daitezkeen eremu gisa, berezkoak dituzten edo lortuko dituzten ingurumen-balioengatik eragiketa orokorraren barruan hutsune gisa lurraldean adierazgarritasun handiena lortzen duten espazio gisa baizik.

Orain sartuta daudeneko lurraldearen "prozesuak" espazio horietan ingurumeneko esku-hartzeari lehentasuna emateko nahia adierazten du. Beren tratamendua eta bereganatu dezaketen emaitzako izaera eskumena duen arloko administrazioak esku-hartzeari begira egingo duen balorazioaren arabera izango badira ere, lurralde-antolamenduaren ikuspegitik hartu beharko litzatekeen orientazioa adierazi daiteke:

- Nekazaritza eta basogintzako mota desberdinetako mosaikoak sortzea, hiri-jardueren jarraitutasun posiblea etengo dutenak eta igarobide ekologikoen sorkuntzan eta multzoaren ingurumen-kalitatea mantentzen lagunduko dutenak.
- Ingurumenean egingo den esku hartzea laborantzako teknika berritzaileen aplikazioa bultzatzeko aprobetxatzea, ingurumenarekiko eta giza osasunarekiko errespetu handiagoarekin bat etorriko diren teknikak izanik.
- Eremu zehatzetan basoak berritzea, gaur egun desagertuta dauden Lautadako berezko espezieekin, bertan zuhaitz-eremuak lehengoratzeko ahalbidetuz.

Berrikuntzaren Arkuko “hutsuneak” ia gehienak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia edo oso handia duten lurzoruetan daudela kontuan hartu beharko da.

v.2. Zadorraren igarobide berdea

Zadorra ibaiaren ibilgua 3. planoan barne hartu da, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuan, bere ingurumen-balioa aintzatesteko eta bertako ingurumenean burutuko den jarduerari lehentasuna emateko.

Zadorraren igarobidea ardatz berde gisa itxuratzen da, ibaiaren ibilguari jarraituz Vitoria-Gasteizko hirigunearen eta Ullibarriko urtegiaren arteko ordezkoko paisaia-ibilbide baten sorkuntzan lagundu dezakeena, oinezkoak eta txirrindulariak bertatik igaroz, eta bi udalerrri zeharkatuz: Arrazua-Ubarrundia eta Vitoria-Gasteiz.

Zeharkatzen duen eremuak duen izaeraren arabera igarobidea tratamendu desberdinen eraginpean gera badaiteke ere, ondoren adierazten diren iradokizunak kontuan hartzea gomendatzen da:

- Bereizitako ibiltarteak dagokien tratamendurako bereiztea: N-I errepidearen ingurabidearen barrukoa eta kanpoko.
- Lehenak, bere sorkuntzan aldaketak onartzeko adina hedadura izan arren, hiri-mailaren azpiko izaerari erantzun beharko lioke, hiritarrek erabiltzea erraztuz.
- Bigarrena landa-izaerako parke lineal gisa eratu beharko litzateke, ibaiaren ertzetik pasealekua sustatuz, gutxieneko zerbitzuekin eta oinezkoentzat nahiz txirrindularientzat egokitutako egonaldirako eremuekin.
 - Ibilbidearen gune nagusi edo mugarri gisa jardun dezakeen ekipamenduren bat barne har dezake, ezarpenerako lekuari eta sortu nahi den igarobide-motari egokitua, Gamarra Gutxian edo Arroiabe inguruetan lehentasunez kokatuko litzatekeena.
 - Ibaiaren ertzeko basoa lehengoratzeko kontuan hartu beharko litzateke.

v.3. Jarduera ekonomikorako espazioa N-622 errepidean

N-622 errepidearen eta Forondako aireporturako sarbidearen arteko loturaren inguruan kokatutako lurzoruek beren posizioagatik duten balioa kontuan hartu beharko litzateke. Iparraldera Etxabarri-Ibiñako Merkataritzagunea dago eta loturatik gertu hirugarren sektoreko erabilerak kokatzeko aukera aztertu ahal izango litzateke baita hegoalderantz luzatuko liratekeen jarduera ekonomikoak kokatzeko aukera ere, errepidearen eta Arakako lurzoru militarren artean mugatutako lursailaren zerrendan, Ariñezerraino. Mendigurengo gunearen integrazioan eta euskarritzat jardun dezaketen lurzoruek akuiferoen kutsadurarekiko duten urrakortasun-maila handian arreta jarri beharko litzateke.

v.4. Salburuko istilak

3. planoan, “Lurraldearen gobernua. Prozesuak”, “lurraldea birkualifikatzeko” prozesuan barne hartzen dira, orain burutzen ari diren istil horiek lehengoratzeko diren ekimenak bultzatzearen.

Arabako Lautadan, Zadorra ibaiaren sistema hidrologikoari dagozkion azkenetako hezegune naturalak lehengoratu eta kontserbatzeak duen garrantzia baloratu behar da. Salburuaren iraupena betelan artifizialen prozesuak mehatxatzen ari dira, baita maila freatikoaren aldaketak, nekazaritza eta abeltzaintzako presioak eta aisia eta hirigintzako jardueren ingurunean eragindako narriadura orokorrak ere. Honako hau gomendatzen da:

- Oraingo narriadura- eta aldaketa-prozesua etetea. Horretarako ezinbesteko ekintzak burutu beharko lirateke zaharberritze topografikoari eta hezegunearen garbiketa orokorrari begira.
- Bigarren fase batean, enklabeko landaredia zaharberritzea, inguruaren egokitzapen orokorrarekin batera, hezeguneko habitaten hobekuntza ondorioz ekarriko lukeena. Horrekin naturaren lehengoratze-prozesuari ekingo zaio.
- Istilen inguruaren azaleko drainatze-sistemak zaharberritzea, beren funtzionamendu hidrologiko egokia bultzatzeko.
- Salburuko istilen inguruetan babes-zerrenda bat ziurtatzea gertuko hiri-jardueren eta nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren eragin posibleak moteltzeko.

v.5. Lautadako hornikuntzen espazioa

Lurraldean eragina izango duen espazio ekipatu bat sortzea iradokitzen da, bertara Ullibarriko urtegiak eta inguruak jasaten duten gehiegizko presioa bideratuko litzatekeelarik. Uraz baliatuz kirol eta aisiarako multzo berri bat sortzea instalazioen funtsezko erreferentzi puntu izateko: igerileku estaliak eta aire zabalean (edo estalkiak zabaltzeko aukera eguraldi ona dagoenean), aisiarako igerilekuak, igeri egiteko eskolak eta ur-kirolen praktika.

Erabilera intentsiboko ekipamendu gisa sortuko da, aisia eta urak eragiten duen gozamina ziurtatuz, urtegiaren hornidura-funtzioa kualifikatzea ahalbidetuko duena.

Honako hauen komenigarritasuna kontuan hartu beharko litzateke:

- Aisiari lotutako ur-jarduerak kirolari eta aisiari lotutako beste jarduerak batzuekin osatzea, Eragiketaren planteamendu orokorrarekin bateragarriak izango direnak.
- Aisiarako espazioa antolatzea Ullibarriko urtegirantz behatokiak eskainiz eta bertako paisaiaz baliatzea ahalbidetuz.
- Ingurunean aparkalekurako beharrezko eremuak behar bezala integratzea, eremu horiek zatikatuz eta landaredia barneratuz.
- Eremuan zuhaitzak landatzean eta lorategiak ipintzean landare-espezie autoktonoak erabiltzea.
- Instalazioak gauez erabiltzearen komenigarritasuna aztertzea, berez duten xedearekin edo argi eta soinuak ikuskizun, festa eta abarrerako.

v.6. Higadura

Gasteizko mendien iparraldeko hegalean Arrato mendilerroaren inguruko mendietan eragina duten higadura-prozesuen egoera aztertzea, antzemandako problematikaren arabera zaharberritzeko ekintzak zehaztu eta, ondoren, bultzatu ahal izateko.

v.7. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berriazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoruen ia %75ak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina, handia edo oso handia duela kontuan izanik.

v.8. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Udalerriko lurzoru gehienak balio agrologiko handikoak direla kontuan izanik, hirigintzari lotutako edozein ekintzaren eragin ia saihestezinen aurrean, konpentsaziozko ekintzak ezarriko lirateke landa-izaerako beste lurzoru batzuetan, ingurumenaren eta produkzioaren ikuspegitik beren kalitatea hobetzearen.

v.9. Azpiegitura berriak

Bide-azpiegitura berriek eta abiadura handiko trenbidearen trazadura berriak udalerrian izan dezaketen eragina kontuan hartzea, esparru desberdinetan hain zuzen ere. Azpiegitura horien diseinuaren ezaugarriak egokitu egin beharko dira ingurunean ondo integratzea ziurtatzeko, lurraldean oztopo bihur ez daitezzen.

ZALDUONDO

i. Hartzan dituen zatiak: B-1 eta C-3

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-4, AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Altzaina mendien hegoaldeko hegaletatik hedatu diren higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean esku hartzea, udalerraren iparraldeko mugan.

v.2. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Gune nagusiaren hegoaldean/hego-ekialdean kokatutako balio agrologiko handiko lurzoruak aktiboki zaintzea.

ZAMBRANA

i. Hartzten dituen zatiak: B-8 eta B-9

ii. Hiri-sistema:

Orain dauden hirigune txikiak: egiturari dagokionez berezitasunak dituzten guneak (fundazioko hiribilduak, hiri-bilbe interesgarria, populaketa kontzentratuaren bilbea).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-9

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Txulato muinoan –batik bat bere iparraldeko hegalean– eta Toloño inguruko iparraldeko mendietan, udalerraren hegoaldeko mugan zabal hedatuta dauden higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean esku hartzea.

Inglares ibaiaren bi ertzetan hedatutako lurzoruek dituzten berezitasun geoteknikoetan arreta berezia jartzea, Ocio gunearen gainean eraginez, Bergantzuraino zabaltzen direnak, eraikuntzari baldintzak ezarriz.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, udal-esparruko lurzoru guztiek akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila ertaina, handia edo oso handia dutela kontuan izanik.

v.3. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Ebro ibarrean kokatzen diren eta Inglares ibarrera zabaltzen diren udalerriko balio agrologiko handiko lurzoruak aktiboki zaintzea.

ZIGOITIA

i. Hartzen dituen zatiak: B-1, B-2 eta B-3

ii. Hiri-sistema:

Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko guneak (Ordezko habitatak).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-1, AE-8

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Higadura

Gorbeia mendigunearen eta Arrato mendilerroaren inguruko mendietan antzemandako higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean esku hartzea, udalerraren iparraldean eta hego-mendebaldeko muturrean eragina dutenak.

v.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Berariazko arloko araudiak udal-esparruaren hegoaldeko lurzoruetan kokatutako edozein esku-hartzeren garapenean ezarritako baldintzekiko errespetua sustatzea, Letona, Apodaka, Etxabarri-Ibiña eta Mendarozketako guneak dauden lekuan, akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun-maila handia eta oso handia dutela kontuan izanik.

v.3. Balio agrologikoa duten lurzoruak

Gopegitik gertu eta bere inguruetan kokatuta dauden balio agrologiko handiko lurzoruen orban txikiak aktiboki zaintzea.

ZUIA

i. Hartzen dituen zatiak: B-2

ii. Hiri-sistema:

Zehaztu gabeko hazkundera duten dentsitate txikiko gunek (Ordezko habitatak).

iii. Eragiketa Estrategikoak: --

Determinazio lotesleak

iv. Ekintza Egituratzailerak: AE-8

Arloko administrazioei zuzendutako gomendioak

v. Oharrak:

Udal-ekintzarako iradokizunak

v.1. Zientzia eta Ingurumenaren Ikerketa Zentroa

A-624 errepidean oinarritutako zientzia eta ingurumenari buruzko Ikerketa Zentro bat sortzea, Gorbeiako Parke Naturalean barne hartzen ez diren lurzoruetan, ipar-mendebaldearen N-622 errepidearekiko paraleloa den ordezko ibilbidearen –AE-8 Ekintza Egituratzaileran aurreikusitakoa– eta Altuberen artean.

- Foru Aldundiaren planen ildotik, ekintzak Gorbeiako Parke Naturaleko Etxea eraikitzea eraman zuten helburuen luzapena aurreikus dezake. Horrela, oraingo informazio eta kontsultarako gunea ikerketarako eremu batekin osatu daiteke, Euskal Herriko mendi enblematikoenaren ingurunean ingurumenari buruzko benetako hezkuntza-gunea izatea eragingo lukeena.
- Zentroa natur ingurunearen erreferentzi puntu bihurtzeko beharrezko ekipamenduez eta baliabideez hornitu beharko litzateke.
- Espazio berri horretan bisitan datozen eta informazioa jaso nahi duten talde txikien aldi baterako alojamentua aurreikus daiteke, ikasleei nahiz helduei zuzendua.
- Parkeko Etxeak bezalaxe, Ikerketa Zentroak bere arkitekturan eta eraikuntzarako materialetan ingurunearekin erabat integratuta geratu beharko luke, era berean ingurumenari lotutako balioekiko erabateko errespetuaren sinbolo izanik.
- Aparkaleku eta zerbitzuetarako espazioen diseinuan arreta handia jarri beharko litzateke, eta ikusmenari eta ingurumenari begira ahalik eta inpaktu txikiena izatea, ezarriko den lekuaren exijentzia saihestezina delako.

Kontu handia jarri beharko litzateke A-68aren ertzaren tratamenduan, autobideak eragindako efektu-barreraren kontrola ziurtatuko duen paisaia-tratamendua zainduz.

v.2. Higadura

Gorbeia mendigunearen hegaletatik eta inguruko mendietatik, udalerraren iparraldera, eta Atxaba muinotik eta Arrato mendilerroaren inguruko mendietatik, udalerraren hegoaldera/hego-ekialdera hedatutako higadura-prozesuak aztertzea eta kontrolean aktiboki esku hartzea.

Gilierna, Lukiano, Aperregi, Domaikia eta Jugoko guneeak osatutako arkuan, Murgiako gunearen ekialderaino iritsiz, zabaltzen diren lurzoruen berezitasun geoteknikoetan arreta berezia jarri behar da, eraikuntzari baldintzak ezartzen dizkieten neurrian.

v.3. Balio agrologikoa duten lurzorua

Gune nagusiaren inguruan geratzen diren eta gertuko ingurunean dauden balio agrologiko handiko lurzoruen orbanak aktiboki zaintzea.